

Mikel GOÑI

Profesionaletan lehen txapelaren bila

Filaerdietan Olaizola Goizuetarra garaitu ondotik, igande honetan bigarren mailako eskuz banakako txapelketaren finala jokatuko du Donostiako Atano III.a pilotalekuan Juan txo Kokaren kontra. Oronoztik autobusa joanen da animoak ematera.

29

3 Elkarrizketa: Mitzel Tomasena

Goizuetar hau, argitaratu berri den Arano eta Goizuetako mapa egiten laguntzaile izan da.

6 Iritzia: Garraiolarien grebaren eragina

27 Kultura: Martxoan abiatuko da Nafarroako bertsolari Txapelketa

Mikel Altzuart arizkundarrarekin elkarrizketa.

TTIPI-TTAPA honekin batera: Etxetik Plazara

IKAko euskaltegiek argitaratzen duten aldizkari didaktikoa.

Elizondoko COFES-HAIZEA

Familia Orientabide eta Sexu Heziketarako Zentruen egitura murriztua geldi daiteke

Nafarroako Gobernuak onartzeko puntuan duen Emakumeendako Osasun Laguntza Planaren arabera, emakume bakoitzak berak nahi duen ginekologoa hautatu ahal izanen du haurdunaldi eta erditzearen segimendua egiteko. Elizondoko COFES-Haizea Zentrukoek adierazi digutenez, ordea, Plan berri honekin orain egiten duten Heziketa eta Informazio lanak alde batera gelditzeko arriskua dago eta beldur dira Elizondon bertan eskeintzen diren zerbitzuak jasotzeko berriz ere Iruñearaino joan beharra izanen ote den.

4



GRAFICAS

ONA




*Bizitza
koloreztatzen
dugu!*

Artika z/g • 31014 Iruñea
Tel. 14.99.99 • Fax 14.22.90

Komunikazio integrala

Katalogoak, Liburuak, Kartelak (1.30 m x 5 m.), Publizitatea...



MUEBLES
METS
mobleak orokorrean

Erakusketa

Bidasoa karrika, 45 eta 60 • **BERA** Tfnoa: 948-630537

DATUAK.....

❖ *Mitxel Tomasena orain 48 urte sortu zen Goizuetako Bikainean.*

❖ *Lanbidez aparejadorea da Iruñan. Lekaroz eta Bartzelonan egin zituen ikasketak. Asteburuetan, halere, maiz joaten da sorterrira.*

❖ *Argitaratu berri den Arano eta Goizuetako mapa egiten laguntzaile izan da, Xabier Taberna eta Luis Fernando Etxeberria herritarrak bezalaxe. Lan teknikoia Oiartzungo Obie taldeak egin du.*

❖ *Liburuxka ere plazaratu dute maparekin batera.*

❖ *Lanik haundiena, ordea, mapak saltzea dela uste du.*

✍ **Mitxel TOMASENA** Goizuetako aparejadorea

“Urte askotako lana dago argitaratu dugun Goizueta-Aranoko mapan”

ZEIN EZAUGARRI DITU ARGITARATU BERRI DUZUEN MAPAK?

Goizueta eta Arano hartzen ditu eta inguruko mugetako izenak ere ageri dira. 1.500 ale argitaratu dira eta 1.500 pezetatant salgai daude. Aurrekontua berriz, milioi bat ingurukoa izan da, inprentak eta desnibel lerroak eskuz marraztu dituen delinear-teak jaso dute. Udaletxeak aurreratu digu diru bat, baina salmentarekin gehiena ordaintzea espero dugu.

NOLA GOGORATU ZITZAIZUEN HONELAKO MAPA OSATUA KALERATZEA?

Aurretik baziren beste lan batzuk eginak. Orain dela hamar bat urte, Udaletxean egon nintzenean katastroan lan egin nuen eta leku-izenak eman nizkion Luis Fernando Etxeberriari. Oiartzungo Obie taldeak ere, orain 3-4 urte egin zuen urtebeteko bilketa lana... Hori egina zegoen eta, herriko soziedadean egingdako bilera batean zerbait argitaratzea erabaki genuen. Guzi hori bildu eta gehixeago landu dugu orain, Xabier Tabernaren laguntzarekin. Diputaziotik ere laguntzaren bat izan dugu.

TOPONIMIA ALDETIK LAN HAUNDIA EGIN DUZUE...

▷ *“Toponimia aldetik ikertzeko baliagarria da, baina mendizaleetan ere pentsatu dugu: bide eta bidaxka guziak ongi markatuak daude, olak, iturriak, zubiak, kislulabeak...”*



«Inguru honetan ez dago hain mapa zehatzik»

Obieren lana erreparatu du Xabierrek, ordu asko sartu ditu. Artzainekin egon, batekin bestearekin eta pasada bat eman zion lurralde guziari. Nik uste 3.000 izen baino gehiago izango direla, mapa eta liburuxkaren artean. Bat edo beste izan daiteke hor barna galdua, bai-

na gehienak bildu dira. **INGURU HONETAN HAIN ZEHAZKI EGINDAKO MAPA BAKARRA AL DA?**

Artikutza eta Adarra ingurukoak badira eginak. Obiekoek Oiartzun eta Berakoa egina zuten eta badute hortan esperientzia. Leitzan ere egiteko intentzioarekin dabilzala uste dut.

ZEIN ERABILGARRITASUN EMAN NAHI DIOZUE?

Toponimia aldetik, izenak bildu eta aztertze-ko baliagarria izan daiteke, baina mendizaleetan ere pentsatu dugu.

Bide eta bidaxkak zuzen markatu ditugu, iturriak, ola zaharrak, zubiak, kislulabeak...

GEHIEN BAT GOIZUETAN SALTZEA PENTSATZEN DUZUE EDO BESTE NONBAIT ERE IBILTZEKOAK ZARETE?

Dagoeneko ibiliak gara Bidasoa erreka guzian eta nahiko ongi saltzen dira. Inguruko Herriko Etxetara opari bezala bidali ditugu. Halere, Goizuetan propaganda gehixeago egin eta gehiago saldu behar dela uste dugu.



Informazioa, ginekologia eta sexu-heziketa dira gaur egun COFES-Haizean eskeintzen dituzten zerbitzuak. Hortan aritzen dira Rosa Aiestaran, Jesus Zabaleta, Isabel Aleman eta Ita Sagaseta.

behin eta berri-egindako eskakerei erantzunez, 95eko martxoan hasi ziren lanean COFES zentruak Nafarroa osoan. Geroztik pasatu diren bi urtetan, emakumezkoen minbizi prebentzioa, haurdunaldien segimendua, eta orohar emakumearendako harrera zentru bezala ezagutzera eman dira COFESak. Gure zonaldean, Elizondoko Osasun Etxean ezarri zuten kontsulta eta COFES-Haizea izena paratu zioten, aipatutako zerbituez gain (emakumearen arlokoak) familia plangintza eta sexu orientaziorako informazioa ere ematen dutelako. Guztira 1.438 pertsona atenditu dituzte, gehienak emakumeak.

Emakumearendako Laguntza Unitateak

Orain, COFES zentruen egitura aldatu eta Emakumearendako Laguntza Unitate bihurtu nahi ditu Nafarroako Gobernuak. Osasun Departamentuak egindako ikerketa batetik ondorioztatzen denez, egun emakumearendako laguntza eskeintzen duten zentruak ez dira atentzio integrala emateko gai, osasun errekurtso publikoen antolaketa txarra dela medio. Plangintza berrian errekurtsoen deszentralizatzea

Plan berriarekin COFESak hankamotz geldituko dira


Nafarroako Gobernua, Foru Dekretu baten bitartez Emakumeendako Osasun Laguntza Plana onartzeko puntuan dago. Plan honek emakume bakoitzari nahi duen ginekologoa aukeratzeko eskubidea eskeintzea du helburu, haurdunaldiaren (eta erditzearen) segimendu zehatza egin diezaion. Baina COFESetako langileek planaren alde beltzak agertu dizkigute: Elizondoko zentrua Burlatakoaren menpe geldituko litzateke, orain duen autonomia galduz. Gainera, plan berri honekin orainarte COFES zentruetan burutu diren informazio eta hezitze lanak arrontian bihurtuko direla segurtatzen dute.

beharrezko ikusten da. Proiektuaren helburu nagusia emakume bakoitzak bere ginekologoa aukeratzeko eskubidea bermatzea da, izan ditzakeen haurdunaldi eta erditzearen segimendu espezializatua egin dezan.

COFESeko langileak kexu

Langileak plan honek ekar ditzakeen ondorioen beldur dira. Lehenik eta behin Foru Dekretu bidez onartzearen aurka daude, horrela, arloko profesionalen eta oro-

korrean gizartearen eritzia ez baita kontuan hartzen. Osasun Departamentuaren ikerketa horretan oraingo zentruetako informazio eta hezitze lana gutxiesten duela uste dute COFESekoek, eta hori omen da Emaku-



BI URTEKO BALANTZEA

1.438 PERTSONA HARTU DITUZTE

Haurdunaldiak	%11
Antisorgailuez informatzeko	%25
Abortoak	%1
Basectomiaz informatzeko	%3
Sexu Heziketa	%6,5
Ginekol.+Erizain kontsultak	%53,5
Ginekologia+erizaintza kontsultak guztira	4.000

mearendako Laguntza Planaren hutsune haundienetakoa, prebentzio eta hezitzea, alegia. Bertetik, «plangintzan aipatzen duten deszentralizazioa ez da benetan emanen, erreferentziazko osasun guneak Iruñekoak izanen direlako» segurtatzen dute.

Hezitzaileen arazoa

Elizondoko COFES-Haizean lanean ari diren 4 pertsonetatik ginekologoa eta erizaina mantenduko lirateke proiektua onartzen bada, hau da, parte asistentziala soilik. «Hezitzaile bakarria izanen zen gure eskualdea, Auritz alderdia eta Burlatako Zentruarendako, orain hezitzaileak egiten duen kaptazio lana ezinezko bihurtuz. Administraria eta hezitzailearen paperak desagertuko lirateke eta orainarteko atentzio integrala bi arlo hoiak gabe hankamotz geldituko» COFES-Haizeako langileen hitzetan. Emakumearendako Osasun Laguntza Planarekin, gaur egungo COFES zentruak duten autonomia galduko dute, Elizondokoaren kasuan Osasun Etxearen parte izatera pasatuz. ■

☞ COFES-Haizea

«Plan berriarekin juxtu-juxtuan analisi ginekologikoak egin eta eritasunak aztertuko dira»

Gaugero badira bi urte zerbitzu hau eskeintzen duzuela. Ezagunak egin zarete, edo jendeak Iruñera joaten segitzen al du?

Momentu honetan zerbitzua gaztea da eta oraindik ezagunak egiten ari gara. Hala ere, balorazioa positiboa da. **Zuen eguneroko lanak, hau da, erizaintza kontsulta, sexu arloko heziketa/informazioa eta ginekologoak nolako harrera izan du jendearen aldetik?**

Orokorrean etorri den jendea gustora dagoela iduri du. Hasiara batean konturatu ginen historiala idekitzerakoan, eta gehienbat antisorgailu eta sexualitatearen gaiak aipatzerakoan, jendea harritu xamarra gelditzen zela. Hau, batez ere errebisio ginekologikoa egitera etortzen diren emakumeekin gertatu izan da, hortara bakarrik ohituta daudelako (ordua eskatu, minbizia prebenitzeko azterketa egin, emaitzak hartu eta kitto). Guk, ordea, etortzen den pertsona bakoitza bere osotasunean hartu nahi dugu.

Eta gazte programak?

Gazte programa astean behin eta ikasturtean zehar egiten da: ikusitakoetatik %4 programa honetatik pasatu da. Oraindik lan handia egin behar dugu gazteria gureganatzeko, dagoen informazioa oso eskasa dela somatzen baita, batez ere sexualitatean, sexubidez transmititzen diren gaixotasunak, antisorgailuak...

Orain eskeintzen dituzuen zerbitzuak zertan aldatuko dira Dekretua onartzen bada?

Administrariak eta hezitzaileak egun guziz betetzen duten paper hori galdu eta zerbitzua asistentziala bihurtuko lirateke. Juxtu-juxtuan azterketa ginekologikoak egin eta gaixotasunak aztertu. Denbora faltan, heziketa sexuala, nahi ez diren haurdunaldiak bideratzea etabar, kolokan geldituko lirateke eta orain hemen egiten diren gauza batzuk

egiteko jendea Burlatako zentzura bidali beharko genuke. Plangintza berriari emakumeek dute lekua soilik, eta froga hobereena da gizonek basectomia egiteko, adibidez, informazioa Iruñean eskatu beharko luketela.

Langileen aldetik, nolako banaketa egiten du plan berriak? COFES-Haizeak gaur egun duen disziplina hau da: ginekologoa, erizaina, administraria eta hezitzailea. Plangintza berriarekin, ordea, ginekologoa eta erizaina bakarrik mantenduko lirateke. Administraria Elizondoko Osasun Zentrokoa bera izanen litzateke eta hagitz zaila izanen luke orain dituen lanei bertzeko gehitzea. Azkenik, hezitzailearen afera dago. Hezitzaile batek kaptazio lan izugarria egin beharra du eskualdean eta ezinezkoa litzateke proiektuak aurrikusten duen bezala ia Nafarroako Iparralde osoa hezitzaile batek hartzea.



LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 6.300 ALE

Argitaratzailea: ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza, 1

31780 BERA

Tfnoa: 63 11 88

Faxa: 63 12 91

Internet:

http://www.encomix.es/ttipi-ttapa

e-mail:

ttipi@encomix.es

e-mail:

ttipi@mail.sendanet.es

Zuzendaria: Joxemanuel Irijoien. **Publizitatea:** Miren Karnele Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor Arozena, Asier Gogorza, Joxemanuel Irigoien. **Administrazioa:** Amaia Goia. **Erredakzio taldea:** Pello Apezetxea, Juainas Paul, Kristina Boan, Bittori Telletxea. **Berriemaileak:** Joseba Azpiroz, Esteban Arozena, Juana Mari Gaizar, Ainhoa Mutuberria, Iban sasi, Txema Aldabe, Patxi Otxandorena, Ixabel Maia, Josune Etxeste, Pablo Mendiburu, Joseba Garabide, Alizia Olaizola, Martiri Etxenike, Koro Irazoki, Mikel Gerendiain, Jacqueline, Elitabet Iturria, Garbiñe Maiz, Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Aitor Arozena, Kristina Boan. **Kolaboratzaileak:** EHNE Nafarroa, Mikel Bezunartea, Joxe Javier Etxeberria...

primategia: Graficas Ona.

ttipi-ttapak ez du bere gain har-
zen derrigorrez, aldizkarian adie-
zitatiko erranen eta eritzien eran-
zuzunik.

Irakunde Laguntzaileak: Be-
a, Leitza, Goizueta, Areso, Baz-
an, Urdazubi, Zugarramurdi eta
Garako udalak, Bortziritako Eus-
kara Mankomunitatea, Malerre-
tako Zerbitzu Mankomunitatea,
Zugarramurdiko Akelarre Elkar-
ea...



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNeko GAIA

Garraiolarien huelga egunetan hartutako iritziak

Almazenean ez zaigu gas botila bakar bat ere gelditzen



M^o Jesus IRUNGARAI
Amaior. Alkorta Gas.

Bi almazenetan ez zaigu gas botilla bakar bat ere gelditzen, gelditzen diren azkenak orai banatzen ari gara. Piketeak direla eta kamiolariak ez dira ausartzen etortzera eta egoerak okerrera egiten du, partikularekin zerbitzu minimoak ez baitira egiten, ospitale eta horrelakoekin bakarrik. Jendeak eskatzen duen bitartean, emanen diegu, baino akitzen diren neurrian arazoak izanen ditugu. Halere, jendeak ez du huelga dela eta gehiago eskatu. Guk dakigunez, kamioi bat eskartzeko asmoa dute, «convoy» batean ongi eskolatua, baina hori ez da aski, kamioi batekin ez dugu deus egiten. Guk Baztan-Bidasoako zona guziaz hartzen dugu, Leitza eta Zugarramurdi ere bai, eta Gipuzkoan ere egoera beretsuan dagoen bertze distribuidora dugu. Haiei guri baino lehenago akitu zaie. Grebak guri kalteak eragin badizkigu ere, pentsatzen dut kamiolariak hortaraino ailetu baldin badira beren arazoak izanen dituztela. Kontua luzatzen bada, eskolatua ekarri beharko dute, aunitz jende baita ezin dena gasik gabe pasatu.

Helburuetan ados, baina gauzak ez dira egun batetik bertzera lortzen



Rafael IRIGOIEN
ANETeko lehendakaria

Gobernu berriari sektorearen bigarren errestrukturazio plana aurkeztu zitzaion. Espainian sei konfederazio daude, estatu mailako Komitean biltzen direnak eta hasieran denok ados geunden. Halere, ustekabea, horietatik batek (Fedatrans) lan uzte hau bultzatu zuen -ez da langileen huelga, garraio enpresari autonomoen lan uztea baizik- eta orain bertze bat gehitu da. Beldurraren eraginez Espainia guziaz geldirik dago. Bitartean, komiteak lanean segitzen du, lan egutegi bat burutzen ari gara eta laister bere fruituak emanen ditu. Ezin da landarea sartu eta biharamonean fruitua jaso. Denbora bat behar da egiten ari garen lana ikusteko eta ezin da gehiago azeleratu. Denok ados gaude grebalariekin, baina hori ez da egun batetik bertzera lortzen, biolentzia eta piketeekin ez dugu deus aitzintzen. Errespetatzen ditugu, baina lan egin nahi dutenak errespetatu behar dituzte. Gasleoaren prezioa eta eritasun profesionalak eta aurrejubilazioa dira ikur nagusiak, baina zaila da, azkenean dena ekonomikoki neurtzen delakoz.

Egunean 12-13 ordu ematen dugu lanean, ez bakarrik bolantean



Miguel LETONA
Elizondoko garraiolaria

Gasleoa sobera garesti dago eta hori merketzea, gaixotasun profesionalak onartzea eta jubilazioa 60 urtetan dira gure eskari nagusiak. Hainbertze ordu pasatzen ditugu lanean, karga-deskargan, derrigorrezko atsedendialdiak -Madrilera joateko 7-8 ordu behar dira, baina bolante orduak bakarrik kontatzen dizkigute lan-ordu bezala. Egunean 12-13 ordu sartzen ditugu. Huelgaren eragina jasotzen ari den jendeari konprenio pixko bat eskatzen diogu. Bertze huelga guziaz izaten direnean jendea karrerara ateratzen da, gure lantokira, eta hainbertze aldiz gu ere geldirik egon behar izaten dugu. Ez dut uste huelga luzerako joanen denik, lantegiak errepuestorik gabe baitaude eta konpondu beharko dugu. Estranjeriatik datozen kamiolariak ere ulertzen dute gure arazoa, frantsesak adibidez, orain 15 egun bertze huelga egin zuten. Nere aldetik, supermerkatuak hornitzen dituztenak, esne biltzaileak... lasai ibiltzen ahal dira, denok jan behar baitugu, baina lantegietara materialak eramaten dituztenak ez.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

- Egunero, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.
- Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.
- Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 74 04

IRUÑA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 17 55 40
- Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitopenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta

BOTA BERTSOA



ttipi-ttapak 200. zenbakia

Manolo AROZENA

Nerurria: Hamarreko haundia

Zuk eskuetan duzun honekin ia berrehun ale dirade gure eskualde guztia dago ttipi-ttaparen mirabe hamabostero huts egin gabe etxeraino zatoz trebe zeure merituz egin zerade nortasun haundian jabe eta gainera kaleratzen da alderdikieririk gabe.

Ezin ahanzi Beran bulego(a)n lanean dago(e)n kuadrila herririk herri berri emaila ibiltzen den jende pila laguntzaileen laguntzaileak ere badirade mila beste batzuek hau gauzatzeko behar den diruan bila berrehuneko zero gehiago(re)n kabia izan dadila.

IRAKURLEAK MINTZO

Berako Posta Zerbitzuaren oharra:

Azken boladan, Iberdrola enpresa bere faktura-eskutitzak Berako posta zerbitzuarekin zerikusirik ez duen pertsonalaren bitartez banatzen ari da. Banaketan egiten ari diren akatsak, beraz, Iberdrola enpresari egotzi behar zaizkio, eta ez herriko postariari.



Berako Musika Eskolako administrari lanpostua

Berriki Berako Musika Eskolako administrari laguntzaile lanposturako frogak egin dira. Lanpostu hau behin-behinekoa izanen da, lanpostu finkoa atera arte bete beharrekoa. Lanpostuaren deialdia INEMen bitartez egin zen eta zuzenean langabezian zeuden eta LH-2 (administrari ikasketak) zuten beratarrei baizik ez zieten deitu. Hori dela eta, lau lagun baizik ez ziren frogetara aurkeztu. Lehenengo frogak euskarakoa izan zen (ahozkoa eta idatzizkoa) eta baztertzaila zen, hau da, frogak gaineitzen ez zuenak ez zuten aukerarik izanen hurrengo frogak egiteko. Ohi den bezala, Bortzirietako euskara teknikariak egin zien euskara frogak aurkeztu ziren lau lagunei. Kasu honetan, inork ez zuten gainditu euskara frogak. Baina hara non, lanpostua atera zutenek eta baldintzak eza-

rri zituztenek eurek erabaki zuten teknikariaren erabakia bertan behera utzi eta euskara frogako emaitzak kontuan hartu gabe, aurkeztutako lau lagunei hurrengo frogak egitea, lanpostua behin-behinekoa omen delakoz.

Berako Udalak aspaldi erabakia du aterako dituen lanpostu berrietan euskara jakitea nahitaezko baldintza izanen dela. Beraz, Musika Eskolako lanpostu honekin gertatutako Udalak Udalak berak hartutako erabakiaren kontra doa.

Gainera, Euskararen Legeak garbi erraten du herritarrek administrazioarekiko harremanean euskaraz aritzeko eskubidea dutela eta kasu honetan gertatutakoa ikusita, Udalak oinarritzko eskubide hori kolokan jarri du. Izan ere, euskara frogak gaineitzen ez duen eta beraz, euskaraz behar adinako gaitasunik ez duen pertsona batek beteko baitu lanpostu hori.

Horrelako gertaerak Udalaren aldetik euskararen normalizazioan aurrerapausu sendoak emateko borondaterik ez dagoela pentsarazten digute.

Ohar moduan, argi utzi nahi genuke lanpostu hori beteko duen pertsonaren kontra ez dugula deus erratekorik, eskutitz honen helburua Udalaren jarrera salatzea baita.

BERAKO EUSKARA BATZORDEA



Badator Korrika 10

Heldu den martxoaren 16an, igandea, gauerdialdera, 10. Korrika pasatuko da gure eskualdetik. Sunbillatik etorriko da eta Berrizaun, Igantzi, Lesaka eta Beratik pasatu ondoren Enderalatsan irundarrei emanen diegu lekukoa, euskararen lekukoa. Sei urte joan dira Bortzirietan gozatu genuen azken korrikatik gaur arte. Horregatik ilusio handiagoz ekinen diogula Korrikari ziur gaude, ongi etorri jendetsua prestatuz. Gure hizkuntzaren aldeko ekitaldi erraldoi honetan parte hartzeko modu ezberdin ugari dira, eta lerro hauen probetuz bertan hartzeko gonbitea luzatu nahi dizuegu, animatu! Hor izanen dituzue Korrika Kulturala egitarauaren ekitaldiak herri guzietan (kontzertuak, antzerkiak, bertso bazkariak, erakusketak...). Puntu honetan, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak martxoaren 14an, Lesakan antolatutako Oskorri taldearen kontzertua nabarmendu nahi dugu. Halere, erran bezala, denetarik duzue, adi egon, zure herrian zer dagoen ikasi eta aprobetxatu. Euskarak denon beharra du eta denon artean, euskaraz hitzeginez, gure euskara hobetuz eta ikasiz, euskara behar duen gradora igoko dugu. Martxoaren 16an denok Korrikan laster egi-tera.

BORTZIRIETAKO KORRIKA BATZORDEA



Albistur, 39-K
627542
LESACA

- bitxikeriak •
- opariak •
- enmarkazioak •

GLOBBAL

Zer egin behar duzu udan?

Global-ek zera proposatu nahi dizu: • Au-pair Europar Egonaldiak Frantziar • Hizkuntz-ikastaroak atzerrian

Ostargi Optika

Bidasoa karrika, 8 • BERA • © 948 - 63 07 53

ttipi-ttapa
urte oso batez (24 aldizkari) Ameriketara bidaltzeak 8.000 Pta. balio du.

Interesatua egon ezkerre, deitu **948-631188ra**

 **Pello APEZETXEA** *Etxalaritik*

Bertako funtzionariak?



Galdera hau behin baino gehiagotan egiten da. Zer da hobe, alegia, Gobernua-
ren eta Udalaren eskutik zerbitzu publikoko langileak kanpotik etortzea edo bertakoak izatea? Galdera horrekin ez da inoren eskubiderik mugatu nahi, noski. Badakigu jende gu-

Eta funtzionariak bere zeregina ongi betetzeko, azken finean herriko bizitzan eta historian sartua bizitzea da inportanteena.

ziak baduela eskubidea nonahi lan egiteko. Nonahiko irakaslea edo administraria etor daiteke eskolara edo Udaletxera, nonahi izaten ahal da Herriko Etxeko idazkari edo Gizarte Asistentziako langile.

Bertze hau ere badakigu: herrietako eskoletan maiz gertatzen dela maisu-maestra aldatzea. Edo eta mediku eta erizainena. Mankomunidadeko edo Udaleko langileekin ere gertatzen dena, nahiz eta guttiago. Maiz aldatzea, ordea, ez da gehienetan mesedegarri, jendea ezagutzeko ere astirik ez baitu ematen. Eta jendea ezagutzeta, jendearen bizi-modua, egoera, ohiturak, kultura, hizkuntza, etabar, aski probetxugarri da, zerbitzu ona ematekotan.

Zerk eragiten duen funtzionariaren mugitze eta lekuz aldatzea? Arrazoi bat

baino gehiago dago. Legearen ondorioa da zenbaitetan, funtzionari lanposturako legeak paratzen dituen baldintzak bete behar diren ondorioak. Langile beraren gogo eta nahiak ekartzen du, bertzetan, aldegitte eta ordeztearen beharra. Eta hondarreko hau, langileak bere herri eta etxe aldera hurbildu nahia izaten da, frankotan, aldegittearen arrazoia. Hau da, funtzionaria kanpoko delako.

Badu funtzionariak eskubidea etortzeko eta joateko, lehen erran bezala. Baina badu herriko jendeak ere zerbitzu egokiaren eskubidea.

Eta azken eskubide hau jende gehiagorena da, gainera. Horregatik, lehen-tasuna izan beharko lukeela iduri du eskubide horrek, jende gehienari dagokiona, alegia, guztiak ez badira berdin zaintzen ahal. Zein da aterabide egokia? Langilea bertakoa izanez gero, egonkortasuna seguruagoa izanen da, langileak aisago iraunen du herrian, gehienetan. Horixe da hasierako galdemoduren erranahia. Bertako jendeak hautatzea da egokiena funtzionari lanposturako? Hala ere, izaten da kanpotik etorri eta bertako egiten dena, eta izaten da bertakoa herrian arrotz bezala bizi dena. Eta funtzionariak bere zeregina ongi betetzeko, azken finean herriko bizitzan eta historian sartua bizitzea da inportanteena. Jaiotza lekua baino gehiago.

 **Tiburtzio ARRAZTOA** *Domeztebetik*

Pilota, Euskal Herrikoa da?



Euskaldun gehienek Pilotaren asmatzailak direnik eta bertidanik beraiena izan denik ez dute zalantzan jartzen. Horrela jakinarazten digu Historiak, Frantziar Iraultzatik hasita, Perkain aldudarraren garaitik eta Pilotaren historiak jarraipen bat hartzen duen momentutik. Joan den mendeko azken hamarkadarraino Euskal Herri osoan modalitate guztietatik Laxoa zen nagusi, Pilotaren historia eta Laxoarena ordurarte bat bere izan zelarrik.

Baina pleko modalitate berriak gutxi gora behera 1870ean agertu zirenean Laxoa Baztan, Malerreka eta Bidasoa aldera zokoratu zen. Hala ere, Erremontea sortu arte, 1904ean, Iruñeako "Juego Nuevo" eta bertze frontoietan plean jokatzeko laruzko goanteak erabili zituzten. Gure eskualdeak berriz, ez zuen joko zaharra baztertu eta herriko bestetan partidu hauek ikuskizunik garrantzitsuenak izaten ziren. Bestalde, gure herrietan eraiki diren frontoiengatik eta bereziki azken urte hauetan komunikabideetan izan duen hedapenarengatik, badirudi Pilotak gero eta jarraitzaile gehiago duela eta «gure pilota» ere gehiago entzuten da.

Baina batzuk uste dute-

naren kontra, Pilotan ez da hemen bakarrik aritzen, euskaldunak ez gara Pilotaren jabe, mundu guztian jokatzeko da eta ez bakarrik euskal frontoiko modalitateetan (zesta punta, pala, paleta, eskuz...). Harrigarri badirudi ere, Erta eta Hego Amerika eta Europako zenbait lekutan (Belgika, Holanda, Fran-


Erta eta Hego Amerika eta Europako zenbait lekutan Laxoaren eta batez ere de sagertutako Bote Luzearekin antzekotasun handia duen modalitate bat jokatzeko da, eta baita Canarias eta Valentzian ere.

tzia, Irlanda, Italia...) Laxoaren eta batez ere de sagertutako Bote Luzearekin antzekotasun handia duen modalitate bat jokatzeko da, eta baita Canariasen eta Valentziako frontoietan ere.

Ezin ahaztu, errate baterako, 1755. urtean Valentziar eta Euskadiko selekzioak Cartagenan desafio batean neurtu zirela. Joan den abenduaren hasieran, Laxoa Elkarteak gonbidaturik, Valentziar Pilotako talde batek bisitatu gintuen, eta elkarte hartatik Elizondan abuztuaren azken astean burutuko den asmo bat sortu zen: «Pilota Luzearen Nazioarteko Ihardunaldiak» Belgika, Valentzia eta Euskadiko ordezkariekin. Beraz, aukera paregabea izango da «bertze pilota» euskaldunaren antzekoa dela konturatzeko.

PRENTSATIK BILDUTAKOAK

11 GALDERA LABUR



Nafarkaria 97-2-7

«Gero eta jende gehiagok ikasi nahi du euskara. Gobernuari dagokio eskaera horri erantzuna ematea, eta hori eskatzea, berriz, herriari».

«Euskara eta herritar guztien parte hartzea bultzatu nahi ditugu».

Unai ZABALETA
Leitzako KARRAPE Irratikoa
Nafarkaria 97-II-21

Andres IÑIGO
Euskaltzaindiako Nafarroako
ordezkaria (Iturengoa)
Nafarkaria 97-2-7

◆ **Zer izan nahi duzu haunditan?**

❖ Bere buruaz harro dagoen pertsona.

◆ **Bizitzeko toki bezala aukeratuko zenuke Bera?**

❖ Bai, hagitz gustora.

◆ **Zer dago faltan eta zer soberan zure herrian?**

❖ Ezta erran beharrik ere soberan zein dauden, eta faltan 5 bat lagun.

◆ **Zer moduzkoa da Bordeleko ardoa?**

❖ Nik probatu dudan xuria hagitz goxua eta gorria ere majo.

◆ **Aitortzen ahal duzun bizio bat.**

❖ Ongi jatea. Jatetxe on batean bada hobe.

◆ **Ibardin lan egingen zenuke?**

❖ Ahal izanez gero ez, lan baldintzengatik.

◆ **Ze hizkuntza gustatuko litzaizuke ikastea?**

❖ Greziera, edo erdi galdurik dagoen batenbat.

◆ **Zer egingen duzu aste santuan?**

❖ Ez dut aste santurik izanen, Frantzian ez dutelako bestarik egiten.

◆ **Leitu duzun azken liburua?**


❖ Dostoievskiren «Pobres gentes».

◆ **Euskal Herriko txoko bat.**

❖ Kakoetako arroilak, Xuberoan.

◆ **Ttipi-Ttapan agertu ondotik gehiago ligatuko duzu?**

❖ Dudarik gabe.



Felipe SARAGUETA
Bordelen ikaslea
BERA

J. RAMOS
Zolak akutzilatatu eta barnizatzen dittut
© 631342 BERA • © 637172 LESAKA

BELARRA
OSTATUA - JATETXEA
Amezitia karrika • DONEZTEBE
Tfnoa: 45 03 06

BOTXO
ostatua
Tfnoa: 63 00 52
Zalain Auzoa, BERA

E D A R I A K

● ● ●

○ ○ ○

MANUEL TABERNA S.L.
Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

PIKABEA
Molinero drogerian *pinturak*
galdetu
Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoz 8 • © 630240 - 631495 • **BERA**

ETXANDI
TXOKO
jatetxea
Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN
Tfnoa: 45 04 91

Arrantza denboraldia arautuko duen Foru Agindua karrikaratu da


Hirutan hogeitamabortz izoki arratzatu ahal izanen dira

1997. urtean Nafarroan izanen den arrantzarako arautegia finkatzeko helburuarekin Foru Agindua eman du Nafarroako Gobernuko Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak.

Bertzeak bertze, arrantza daitezkeen espezieak, arrainak neurtzeko modua, debeku osoa duten ibai tarteak eta bertzelako xedapenak ageri dira Foru Agindu honetan.

Urtero bezala, martxoaren hirugarren egandean zabalduko da denboraldia. Egun horretatik maiatzaren 31ra, debekatua egonen da amu naturala erabiltzea Bidasoa ibaian, Doneztebeko San Tiburtzio presatik beheiti; Ezkurra errekan, Zubietako zubitik beheiti eta Ezpelura errekan, Oizko zubitik beheiti.

Izokinaren arrantzaren kasuan, hirutan hogeita hamabosgarren izokina harrapatzen den egunean itxiko da. Hondarreko egun horretan ere arrantza egitea zilegi izanen da.



Arrantza-orduak hilabetez hilabete



- **Martxoa eta apirila:** 7etatik gaueko 9,30etara
- **Maiatza, ekaina eta uztaila:** 6,30etatik gaueko 10,30etara
- **Abuztua:** 7etatik gaueko 10,30etara
- **Iraila eta urria:** 7etatik gaueko 9,30etara

Urteko gainerako egunetan, eguzkia atera baino ordu bat lehenago has daiteke eta sartu ondotik ordu bat pasatzen denean utzi behar da.

Ingurugiro Zuzendaritza Nagusiak hala agintzen badu, 100era igo daiteke arrantzatu daitezkeen izokin kopurua. Uztailaren 20rako gehieneko kopurua harrapatu gabe ere, egun horretan berean akituko da arrantza-garaia. Egun horretatik aitzinera, edozein arrain motaren arrantza debekatua dago Bidasoan, Doneztebeko San Tiburtzio presatik Enderlatsaraino. 40 zentimetro baino guttiagoko izokinak errekaratu behar dira, arrantzale bakoitzak kainabera bakarra eraman eta eguneko izokin bakarra harrapa dezake. Norbait txanda esperoan bada, 20 minutukoa izanen da gehieneko arrantza denbora.

Amuarrain arrantzaldia, berriz, abuztuaren 31n akituko da. Arrantzale bakoitzak ekainaren 30a bitarte, gehienez bortz amuarrain harrapa dezake. Egun horretatik aitzinera hirukoa izanen da gehienekoa. Asteartetan ezin izanen da arrantza egin.

ARRANTZA DEBEKU OSOA DUTEN IBAI ETA ERREKAK

LEITZARAN

- ▼ **Erasote:** iturburutik Plazaolaren lehenagoko trenbideraino eta adarrak.
- ▼ **Gorritzaran:** Plazaolako zubitik goiti eta adarrak.
- ▼ **Astomela:** Aresotik goiti eta adarrak.
- ▼ **Leitzalarrea:** goiko hiru ibaitartean elkargunetik goiti.

URUMEA

- ▼ **Bederan:** iturburutik Leitzako zentraleraino eta adarrak.
- ▼ **Leitzalarrea:** Saratsaingo presatik gorako iturriak.
- ▼ **Artxinaga:** Onbordekiko elkargunetik goiti eta adarrak.
- ▼ **Egibeltza, Alduntzin, Burninpea, Mendiurkullu, Urdallus eta Erroiarrri** ibai osoak eta adarrak.
- ▼ **Artikutza** urteigira doazen erreka guztiak.

EZKURRA

- ▼ **Ezkurra:** Pasakaitzekiko elkargunetik goiti eta adarrak.
- ▼ **Txitxillo eta Anizpe.**

BIDASOA

- ▼ **Bidasoa:** Banaketa ubide guziak Bertizko Jaurerriko zubitik beheiti.
- ▼ **Baztan:** Martalekiko elkargunetik goiti eta adarrak.
- ▼ **Iztaz:** Gorostapoloko urjauzitik goiti eta adarrak.
- ▼ **Beartzun:** Iruritarrengotik goitiko ibaitarte guziak.
- ▼ **Antzolarre, Intzulegi, Azubi, Ballarren, Ibur eta Aiantzoro** ibai osoak.
- ▼ **Marin:** Libus zentraletik goiti eta adarrak.
- ▼ **Zeberia:** ibai osoa Bidasoaraino eta adarrak, Marin ibaiaren ezik.
- ▼ **Irurebieta eta Mendaurraun** ibai osoak.
- ▼ **Latsa:** Ibarlako zubitik goiti eta Igantziko errotako presatik Bidasoaraino.
- ▼ **Tximista:** Sarriko eta Arbotzako erreken elkargunetik goiti.
- ▼ **Etxalar:** burdinlako presatik Bidasoaraino.
- ▼ **Ondalatz:** Akaerreka eta Ollazakoerreken elkargunetik goiti eta adarrak.
- ▼ **Zimeldi, Ibaridin, Zalain, Montoia eta Barraka** ibaiak.

OLABIDEA

- ▼ **Olabidea:** Bizubitik goiti.

ERROBI

- ▼ **Arizakun:** Maribeltzeneako errotatik goiti.
- ▼ **Luzaide:** Zubibeltz eta Ortega erreken arteko elkargunetik goiti.

Dia  **Autozerbitzua deskontua**

Hamabostero ofertak

Zatoz eta ikusi

Eztegara, 6 • ☎ 63 14 03 • **BERA**

TOP CLASS ENGLISH

INGELES AKADEMIA

Alan Leiper
ZUZENDARIA

ITZULPENAK: Ingelesa, Frantsesa
ITZULTZAILEAK: Hitzaldiak, enpresak, etabar.
ESKOLA LAGUNTZA
4 URTEKIK AITZINERA • GAZTEAK • HELDUAK
Ikusentzuteko metodoak • Hango irakasleak • Udako ikastaroak

LESACA • Bitirio Plaza 6, Behea • ☎ 989.702554
BERA • J. Caro Baroja 10, Behea (Eskolaren aitzinean)
ETXALAR • (Eskola zaharretan)

Emakumearen Astea antolatu du Uxua taldeak martxoaren 6tik 9ra

Eskulanan erakusketa, solasaldia, filmea eta afaria izanen dute

KRISTINA BOAN

Martxoaren 6tik 9ra emakumeek egindako eskulanan erakusketa zabalduko da Kultur Etxean. Astegunez, arratsaldeko 6etatik 7etara irekiko dira ateak eta asteburutan goizeko 11etatik 1etara eta arratsaldeko 5etatik 7etara.


Martxoaren 6an, orzteguna, arratsaldeko 7etan "Guraso eta seme-alaba nerabeen arteko harremanak" gaiari buruz arituko da Javier Tirapu, Burlatako Osasun Mentaleko Zentruko psikologoa.

Martxoaren 7an, arratsaldeko 7etan herriko emakume talde baten "Bagara, ezgara" antzelsana antzestuko du. Gaueko 9etan berriaz, afaria izanen da Zalain jatetxean. Afariaren prezioa 2.000 pezetakoa izanen da eta apuntatzeko 631106 telefonora deitu behar da. Afalondotik dantzaldia izanen da trikitalariekin.

Martxoaren 8an, larunbata, "Como ser infeliz y disfrutarlo" filmea ikusgai izanen da Kultur Etxean, 7etan.

❖ **3479 biztanle...**

zituena herriak iazko maiatzaren leian, errodaren arabera. 1.768 gizonen eta 1.711 emakumeen artean.



Gontxalo Errandonea laugarren Espainiako 1.500 metroko txapelketan pista estalian

Gontxalo Errandonea atleta beratarra Donostiako Real Sociedad taldean ari da aurtun eta berriki, Zaragozan, Espainiako pista estaliko 1.500 metroko txapelketan laugarren gelditu zen. Aurtun Arcachongo crossa ere irabazi zuen. Iaz, Gipuzkoako txapelketa irabazi zuen 800 metroan eta Euskadikoan bosgarren sailkatu zen. Berak aitortu digunez, espektatiba haundiak eta goiti joateko asmoak ditu: "Udan Espainiako 800 eta 1.500 metroko txapelketetan domina atera nahi dut". Markak ere ez ditu nolana hikoak, kilometro terdian 3'53" eta 800 metroan, 1'52".

VIII. mendi bizikleta ibilaldia burutu zen otsailaren 16an

Caravanas Oiartzun taldeko Jon Arozenak irabazi zuen otsailaren 16an burututako Berako mendi bizikleta ibilaldiaren zortzigarren edizioa, 28 kilometroko ibilbidea lehen postuan bukatu baitzuen. 18 kilometroko ibilbidean, berriz, Berako Winterthur taldeko Xabier Banda eta Javier Martinez izan ziren lehenak. Guztira 150 txirrindularik parte hartu zuten proban

Korrikaren aldeko bertso bazkaria igande honetan

Badator Korrika! izenburupean bertso bazkaria burutuko da igande honetan, martxoak 2, eguerdiko 1,30etatik aitzinera Gure Txokoa elkartearen. Bertan izanen dira bertso kantari Sebastian Lizaso eta Millan Telleria. Bazkariaren prezioa 1.700 pezetakoa izanen da eta txartelak salgai daude Errekalde ostatuan. Otsailaren 28a baino lehen hartu behar dira txartelak.

flash

- ❖ **Arkupeak**
Jubilatuena elkarteak urteroko besta ospatuko du martxoaren 2an Beran. Goizean, hildako bazkideen aldeko meza eta ondotik bazkaria egiten dute.
- ❖ **Juan Carlos Garro irabazle**
suertatu zen otsailaren 16an Okondo herriko burututako mendi bizikleta proban. Laisterketa hau Arabako Challengearen lehendabizikoa zen. Zortzi kilometroko ibilbideari lau itzuli emateko bi ordu terdi behar izan zituzten Garrok.
- ❖ **Gazte Jokoak**
Larunbat honetan, jogan den urteko Gazte Jokoei buruzko bideo emanaldia eskaini zen pantaila erraldoian Kultur Etxean. Ondotik txokoltea banatu zen eta aurtengo Jokoa ideiak eta asmoak jakinarazi ziren.
- ❖ **Jose Luis Telletxeak**
hirugarren aste bete du gose greban Lisboako kartzelean, bere estradizioaren kontra. Ospitaletik ere pasatu behar izan du, baina berriz ere gartzeleratu dute.
- ❖ **Xorroxin Irratian**
arituko dira Toki Ona Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak martxoaren 3tik 6ra.

BEIRA KRISTALDEGIA
Agerra auzoa harategi parean
© 630557 • BERA
© 929.443765

- ❖ Kristal biselatuak
- ❖ Kristal dekoratuak
- ❖ Ispiluak
- ❖ Bidrierak
- ❖ Kristaldegia orokorrean

ZALAIN
JATETXEA
EGUNEKO MENUA FTA KARTA

Zalain Auzoa
© 63 11 06
BERA

Boda eta banketeak ematen dira

Javier Manterola
TEKNIKO
INSTALATZAILEA
Iturgintza • gasa • kalafakzioa
Tfnoa: 630 031 • BERA

LESACA

Martxoaren 7an burutuko du Beti Gaztek urteko batzar orokorra

Datorren ortziralean, martxoak 7, arratsaldeko 7etan lehen deialdian eta 7,30etan bigarrenetan, Beti Gazte elkartearen urteko ohiko batzar orokorra burutuko da, elkartearen egoitzan.

Beti bezala, joan den urteko akta irakurri eta onartu ondotik, iazko ekitaldiak eta kontuen balantzea aztertuko dira. Ondoren 1997rako prestatutako ekitaldiak eta aurrekontua eztabaidatuko dira.

Futbol zelai berriari buruzko informazioa eta eskaera judizialaren informazioa eskainiko da gero eta eskari-galderen aitzinetik, Gida Batzordearen hautaketaren ingurua da.

San Ferminen jubilatuen Xabiererra

Datorren ortziralean, martxoak 7, Xabiererra bidaia egingen dute San Fermin jubilatuen eta pensionisten elkarteak. Autobusa 8etan abiatuko da, hameketakoa Liedenen egingen dute eta gaztelua bisitatu eta meza aditu ondotik, 2etan bazkari ederra izanen dute. Itzulia bederatziruena eta gero egingen dute, Ilunberri bisitatu. Txartelak 2.000 pezetatik salgai daude elkartearen egoitzan. Martxoaren 4a baino lehen hartu behar dira.



Alde batetik emakumearen problematika eta bertetik Lesakako historia landuko dituzte aurten herri eskolakoek

Herri eskola sortu da jendea etxe xokotik ateriarazi asmoz

Emakumearen arazoak eta herriko historia langai

AITOR AROZENA

«Jendea gero eta guttiago ateratzen dela sumatzen dugu, harreman sozial gutti daukela. Kanpora ateri, biltzeko eta solasteko gune bat izan eta gustokoak dituen gaietan lana egiteko aukera eman nahi diogu». Honela mintzo da Lesakako Herri Eskola sortu duen hama-bi laguneko taldea.

Talde irekia direla azpimarkatzen dute, «nahi duen edozeinek parte har dezake, hizkuntza ere ez da arazoa». Horretarako, hilabeteko lehen asteartetan elkartzen dira arratseko 8etan

Matxinbeltzenezan. Joan den urtean hasi ziren biltzen eta geroztik hainbat gai paratu dituzte mahai gainean. Halere, nonbaitetik hasi behar eta gehien batean bi gai landuko dituzte aurten: Lesakako historia, sortu berria den Bidasoako Ikerketa Zentroarekin batera eta emakumearen problematika. Azken gai honen inguruan egitarau zehatza prestatua daukate, martxoaren 8ko ospakizunak probetuz.

Martxoaren 4ean, *Menopausia eta sexualitateari* buruzko solasaldia burutuko da 7,30etatik aitzinera Ma-

txinbeltzenezan. Martxoaren 8an, Cederna-Garalurek mendialdeko emakumeen lan integrazioarako prestatutako proiektuaren berri emanen da. Ondotik emakumeen afaria ospatuko litzateke. Txartelak okindegian salgai izanen dira martxoaren 6a bitarte. Ondoren, autostima tailer bat osatzeko asmoa dute eta Etxalar, Doneztebe eta Berako emakume taldeen esperientziak ezaugutu nahi dituzte.

Medikuntza alternatiboa edo prentsako euskara ulertzeko tailerrak ere eskutartean dituzten gaiak dira.

flash

❖ **EGA ikastaroa**
EGA azterketa prestatzeko ikastaroa hasia da Bortzirietako euskaltegian. Halere, norbaitek izena eman nahi balu 637796 telefonora deitu. Klaseak larunbatetan ematen dira, goizeko 9etatik 1,30etara.

❖ **Lesakarra Pirenan**
Oscar Fernandez lesakarrak 17 urterekin parte hartu du lehen aldiz Pirena laisterketan. Proba hau, European lera-zakurrrendako egiten den garrantzitsua da eta Oscar 29. postuan ailegatu zen, 19 ordu, 25'16"ko denborarekin. Iruñean hasi eta Gironako La Molinan bukatu zen laisterketarako Sasi Berri ostatuaren laguntza izan du *musker* lesakarrak eta Francisco Fernandez izan du *handler* edo laguntzaile bezala.

❖ **Andra Mari Zahar Etxea**
egoera kaxkarrean eta hagitik hondatua dagoela kontuan hartuz, botatzea erabaki du udalak. Arkitektuaren erranetan, asilo zaharra moldatzeak, gaur egun etxeak duen balioaren erdia baino gehiago gostako litzateke. Orain agiri teknikoak idatzi behar da, ondoren etxea botatzeko lanen adjudikazioa egiteko.

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
© 627573 • LESACA

BEREAU
jattetxea • Hotela
Lesakako Bidegurutzean
Tfnoa: 63 73 82 • LESACA

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 62 75 14
Behoko Plaza 8, LESACA

BEKO ERROIA
Lore eta landareak
Frain auzoa • © 63 78 26
LESACA

ETXALAR

Martxoaren 2an izanen da Altxata Kultur Elkartearen urteko Batzar Nagusia

Inauteetako argazki erakusketa burutu da eskola zaharretan

PELLO APEZETXEA

Heldu den igandean, 12etan, izanen da urteko Batzar Nagusia. Joan den urteko Kontuak azaldu, urtean egindakoa gogoratu, aurtengo asmoen berri eman eta aztertu; hara bilkurako gaiak. Bertze hau ere aitzendu gabe: Junta zati bat berritzea. Dena den, herrian gauzak antolatzeari gogoko izaten dugunez, horrelako bileratan parte hartzea ere bidezko da. Eta Juntak hala espero du.

Inauteetako argazki erakusketa

Joan den larunbatean Inauteetako alderdi batzuk ikusteko aukera izan zen eskola zaharretan, batek eta bertzek egindako argazkiak bertan bildu baitziren, Altxata Elkartearen



Iñauteak

Inoiz baino xuxenago atera ziren aurtien Larraburutik karrozak eta mozorrotuak, herrian barrena itzulia egitera. Adineko, gazte eta haur, denetatik ikusi ahal izan zen. Hori asteartean izan bazen, igandek eta astelehenak ere eskeini zuten bertze betiko alderdia: kinto eta koadrila bazkariak igandean eta baserri-baserriko ibilaldia astelehenean.

Argazkiak: Pello APEZETXEA

deiaeren eraginez. Hainbertze argazki makina direnez, ideia ona izan da argazkiak norberaren etxerako bakarik izan ez daitezzen.

Mus txapelketa...

ere burutu zen arratsalde berean. Erakusketa nahiz musaldia Korrika kulturalaren ekitaldiak izan dira.

Korrika ttikia

Martxoaren 16an pasatuko da Bortzirietan barrena euskararen aldeko Korrika. Martxoaren 14an, ortzirala,

Korrika ttikia egingen dute hurrek herrian, arrazoiz eta helburu berdinegatik: gure herri hizkuntzaren alde jokatu beharra adierazi.

XATURETXEA

JATETXEA
 Tfnoa: 63 70 27 LESAKA

INAXIO JANARRIDIA INAXIO JANARRIDENDIA
 Igandetan 9etatik 13etara irekia
ASTERO eskeintza bereziak
Plaza Zaharra, Tfnoa: 637059 - LESAKA

GOZOTEGI - JAZONE

 Altzate, 19 • 630786 • BERA

IRU BIDE
 ERRETEGIA
 Tfnoa: 637127
LESAKA

HERRIKO OSTATUA
Jatetxea
SAGARDOTEGI MENU BEREZIA
 Tronizoa sagardo orara Pertsonako
 Bakailu Tortila **1950 Pta.**
 Idi truletza (2 persona gutxienez)
 Gasna, membrilloa, intraurrak
 eta sagardoa nahi dituzte
 635290
ETXALAR
 ASTEARTETAN
 ITXITA
 Astegunetan afariak aurrez eskatuta bakarrik

koxkonta

Sagardotegia zabalik
 Deitu erreserbak egiteko
 Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • **LESAKA**

KOXKILA OSTATUA

 Zarandia, 4 - **LESAKA**

IGANTZI

Hamaika haur joanen dira herritik Isabako eski ikastaroetara

103 urte bete zituen otsailaren 20an Patxiku Iriberekoak

OSKAR TXOPERENA

Heldu den hilabetearen hasieran, Igantziko eskolako bosgarren eta seigarren mailako zazpi hau eta Beran ikasten ari diren bertze lau Isaba aldera joanen dira eski ikastaroetan parte hartzera. Laguntza eskatu dute Herriko Etxean joan ahal izateko.

Iribereko Patxikuk 103 urte bete ditu

Bere familiaz inguraturik, egoera ezin hobean ospatu zuen Patxiku Iriberekoak bere 103. urtebetetzea, bere adina kontutan harturik, beti ere. Joan den urtean kadera hautsi zueneko istripua atzenua daukala ematen du, ederki baitabila berriz ere. Zorionak, Patxiku.

Parrokiko kontuak

Zulo haundi xama-



Igantziarrak Lesakako pilota txapelketan eta Arkupeak elkartearen besta

Argazkian ageri den bezala, Igantziko sei pilotari izan genituen Lesakako pala txapelketako finalean. Otxoteko lesakarra eta Miguel Angel Txoperena izan ziren txapeldunak. Urteko besta giro ederean ospatu zuten, bertzalde, Arkupeak elkarteko Igantziko bazkideek. 60tik goiti bildu ziren

Arg.: Oskar TXOPERENA



rra dago aurtengo parrokiko kontuetan. Herritarrei egindako eskaeran ageri denez, 700.000 pezetatik goitiko defizita sortu da azken hilabete hauetan, parrokiko zentroan

egindako moldaketen-gatik, batez ere.

Korrika

Zenbait data ezberdin aitzinera eta gibelera ibili ondotik, martxoaren 16an pasatuko

omen da Korrika Igantzitik. Euskara Batzorde, Eskola, Guraso Elkartea eta Biltokikoak, eguna behar bezala antolatuzeko lanetan dabilza eta emanen dugu egitarauaren berri.

Administrari probak

Martxoaren 11ngoizko 10etan hasiko dira udal administrazioa bereizteko probak. Lehengoetan erran dugun bezala, 42 lehiakide izanen dira.

LABE ZAR
© 631076 • BERA

GRUPO ZURICH

ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 — BERA — ☎ 63 07 63

SAROBÉ
okindegia

SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

ORBELA
gimnasioa

- Squash eta sauna
- Hidromasaje bainua
- Muskulazio-aretoa
- Masajea:
- Orokorra
- Kirol masaia
- Giharrak lixatzeko
- Bizkarreko mina
- Beso eta zangoak
- Errekuperazioa

Antoiu 21 • ☎ 637950 • LESAKA

barnek s.l.

Sukalde mobileen fabrika

Zuzeneko salmenta
Lesakako sarreran, Beko-Errota ondoan

Otsango auzoa • LESAKA • Tel.: 637850, Fax: 637928

ZIALDO OSTAROA

LESAKA

EROSLE
LESAKA

Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena

Frexkuena zugandik hurbilago

Bittiria, 67 • ☎ 637264

ARANTZA

Sagardoa txotxetik edateko aukera ortziral honetan Ekaitza elkarte

Korrika Kulturaleko ekitaldiak martxoaren 8an burutuko dira herrian

ELIXABET ETA GARBINE

Ekaitza elkarteak otsailaren 28rako, hau da, ortziral honetarako, Txotx Eguna antolatu du. Egun horretan, elkarte sagardotegi tiki batean bihurtuko da. Bertan herrian egindako sagardoaz betetako kupel bat izanen da, probatu nahi duenarentzat. Afaria gaueko 9etan hasiko da sagardotegietan normalean eskaintzen duten gisako menuarekin: bakailu tortila, txuleta, gazta, menbrilloa, gazta eta intxaurrak. Sagardoa nahi adina, noski. Bertsoak ere ez dira faltako, Sebastian Lizaso eta Andoni Egañaren eskutik.



Ortziral honetan sagardoa zuzenean kupeletik edateko aukera izanen da Ekaitza elkarte

Artxibokoa

“Urrunetik elkarrik” izeneko antzeslana eskainiko da eta arratsen afaria Ekaitza elkarte. Gauez, 11,30-12ak aldera *Xuia* reggae taldearen kontzertua izanen da leku berean. Ekitaldi hauekin, martxoan eginen den Korrika bultzatu nahi da.

Kotxe bat eta denda batean ebatsi dute

Otsailaren 6an gutti goiti beheiti, ebasketak izan dira herrian. Gauean, herriko gazte baten kotxea ebatsi zuten, baita denda baten eskaparetean zeuden bi telebista ere. Astebete beranduago kotxea Santanderen kolpatua agertu zen. Dirudinez, lapurrak, lapurtutako bertze kotxe batean agertu ziren herrira, hemengo ez zen kotxe bat gelditu baitzen.

Korrika Kulturalerako egitaraua

Martxoaren 8an ospatuko dira Korrika

Kulturalaren barnean Arantzan antolatutako

ekitaldiak. Arratsaldean Korrika herriko bate-

kin hasiko dira, San Juan Xarretik goiti. Ondoren

Irungo errep. - BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tsiminiak
Angeluak	Erlaizak
Orma antzinak	Moldurak
Leihoak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrazkiak
Pilareak	

Abejarlades Mezloa
Zelair antzekoak Trapatza

ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK

ALBERGIA JATETXEA

ATERPE ALBERGIA

☎ 634179
ARANTZA

OKANE

HARATEGIA · URDAITEGIA

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 · BERA

Aranguren

Aroztegi mekanikoa

- Leihoak
- Aurre-markoak
- Eskailerak
- Fabrikanteak gara

Tel.-Fax: (948) 63 72 58
Tel.mug.: 908 -77 51 85
Otsango industrialdea
31770 LESAKA

OBRA PROIEKTUAK

- ✓ Etxe berriak eraikitzeko
- ✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
- ✓ Urbanizazio proiektuak
- ✓ Obra-zuzendaritza

Udalendako aholkularitza-zerbitzua hirigintza lanetan

BIDASOA
arkitektura bulegoa

Bittiria, 45 • ☎ 637503 • LESAKA

SUNBILLA

Ulibeltza elkarteak urteko batzarra burutu zuen otsailaren 9an

Zuzendaritza Batzordea berritzeko gelditu da

JOSUNE ETA ISABEL

Ulibeltza elkarteak urteko batzar orokorra burutu zuen otsailaren 9an. Guztira hogeita hamasei lagun bildu ziren. Joan den urteko akta irakurri eta onartu ondoren, urteko kontuen la-

burpenaren berri eman zen. Batzarrak erabaki zuenez, aurtengoan bazkide izan nahi dutentzat kuota igo egingen da. Honela, 18 urte arteko bazkide berriek 50.000 pezeta ordaindu beharko dute (orain arte 15.000 pe-

zeta) eta 19 urtetik goitikoek, berriz, 100.000 pezeta ordainduko dute (lehen 50.000 pezeta).

Bertzalde, Zuzendaritza Batzordea berritzearen beharra sumatzen da elkartearen. Joxe Migel Zelaieta lehen-

dakariak, Migel Jorajuria lehendakari ordeak, Ainhoa Agesta diruzainak eta Miguel M^a Mariezkurrena eta Fermin Zelaieta bokalak bi urte pasatu dituzte juntan eta bertze batzuen txanda ailegatu dela pentsatzen dute.

Malerreka eta Baztan aldeko futbito txapelketa finalerdietan

Asteburu honetan jokatzekoak ziren Malerreka eta Baztan aldeko futbito txapelketaren final laurdenak, Elizondoko polikiroldegian eta Sunbillako frontoian.

Hasierako hamabi taldeetatik, Bar Titi, Narbarte, Ulibeltzak, Arraioz, Basaburua, 12 Ostata, Xampale eta Elgorriaga dira final laurdenetara sailkatu direnak. Finalerdia berriz, igande honetan jokatuko dira eta final haundia, datorren igandean, martxoaren 9an.

Orain arteko sailkapenean, kiroltasunaren saria Titi ostuarentzat da, erregulartasunaren saria Arraiozko Agerberere jokalariaentzat, Elgorriagako Mariezkurrena da golegilerik onena eta Ulibeltzako Rafael Irazoki atezainik finena.



Ariztigain kanpina San Jose egunean zabalduko da

Ariztigain kanping-ak bere ateak zabalduko ditu bigarren urtez. San Jose egunean hasiko dute denboraldia eta egun horretan txokoltea debalde banatuko dute. Hasteko modu ederra, duikabe. Joan den urtean bezalaxe, zerbitzu eskaintza zabala eskainiko dute kanpalekuan –ostata, autozerbitzua, etabar...-, inguru zoragarri batean.



SANTAMARIA Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta

Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



AMEZTIA Jatetxea - Hostala

Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan

Tfnoa: 450028 • DONEZTEBE

ttipi-ttapa

6.300 harpidedun
22.000 irakurle



CAMPING ARIZTIGAIN

San Jose egunean txokoltea debalde emanen da

Zubizargaina baserria
© 948. 45 05 40
SUNBILLA

ILEAPAINDEGIA

"ARTAZI"



Zure ilea, zure gustora apaindua
Ezkontza, jaunartze eta bataioetan
erregalatzeko oparitzoak

Erregaloak eta kremak

Gindal ibiltokia, 3 - 1.D
Tel. (948) 45 08 44

31791 SUNBILLA

DBHko lehenengo zikloko neska-mutikoeak Aste Zuria kanpaina parte hartu zuten

Orain Lehen Hezkuntzako seigarren mailakoak daude Otsagin

TXEMA ALDABE

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko haurrak Otsagin izan ziren otsailaren 2tik 7ra, Aste Zuriaren barranean. Goizez fondo edo ipar eskia egin zuten eta arratsalde berzelako ekitaldiak: natura eskola, eskulanak eta herri kirolak. Ekitaldi hauek Irurtzungo eskolakoekin batera egin zituzten. Antolamendua, goizeko nahiz arratsaldeko ekitaldiena, bertako monitorean esku joan zen.

Otsagiko aterpetxean primeran egon ziren, janari ona eta gaeuz mus eta futbolin txapelketak antolatuz. Denetara 51



Eskolako ikasleak, Otsagiko aterpetxearen aitzinean

neska-mutiko eta hiru maisu maixtra joan ziren eta denak pozik itzuli ziren, diploma eta

guzi eskuratu ondotik. Aste honetan, berriz, Lehen Hezkuntzako seigarren mailako 22 haur

eta 2 maisu Otsagin dira, hauek ere elurretan ederki pasatzeko asmarekin joanak.

flash

- ◆ **Elizaren mantenurako**
75.000 pezeta jasoko ditu udaletik Jose M^a Zelaieta erretoareak. Kanposantua-
ren mantenimenduz arduratzen den Pascasio Gastesik berriz, 100.000 pezeta jasoko ditu. Idazkaria sari hauek arautu behar haren premiaz solastu zen.
- ◆ **Askingo Pausan**
dagoen Ramon borda hogeit erterako eman dio udalak Bautista Erasuni, aziendak bertan gordetzeko.

Udal liburuzain eta administrari laguntzaile lanpostuetarako kontratuak egin ditu udalak

Hilbeltzaren 31 arte Itziar Goñi aritu ondoren, bertze bi langile kontratatu ditu udalak, aurtien liburutegian lanean aritzeko. Hilbeltzaren 27an egindako

bilkuran udalak Marga Erdozain maiatzaren 31 bitartean kontratatzea onetsi zuen, amatasun baja hartuko baitu orduan. Ekainaren lehenetik urtea akitu artean

berriz, Henar Hillinger arituko da. Bi langile hauek INEMek izendatuak izan dira, lanpostu hau betetzeko baldintzak betetzen dituztelakoan. Aipatu behar

da, hori jakiteko ez dela inolako frogarik egin eta kontratuak lankidetzaz sozialetarako bezala ezagunak direnak izanen direla.

ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA

Bertze aldetik, udaletxeko administrari la-

guntzaile postua M^a Jose Zarranzek beteko du, lanpostu honek eskatzen dituen baldintzak berak bakarrik betetzen dituelakoan. Heldu den urteko hilbeltzaren 11 arte eginen zaio kontratua, honi ere lankidetzaz sozial gisakoa.



APARAN, S. A. BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 450 133
451 541
Faxa: 450 334
DONEZTEBE

MASAIA eta BIZKORTZE ARIKETAK

Txomin IRAZOKI

ORDUTEGIA

Astearte eta ortziraletan,
goizeko 9,30etatik aitzinera
Asteazkenetan, 3etatik aitzinera

Parrokia 5 • ☎ 451854, 908.576388 • **DONEZTEBE**

MALERREKA

Haur Kantari txapelketako lehen saioa Donezteben burutuko da larunbatean

Finala Iruñeko Gaiarre antzokian izanen da martxoaren 23an

TTIPI-TTAPA

Larunbat honetan, martxoak 1, arratsaldeko 4,30etatik aitzinera burutuko da Doneztebeko Bordatxo dantza-lekuan Nafarroako Haur Kantari txapelketako lehen saioa.

Urtero bezala, ekitaldi hau Nafarroako Kantuzaleen elkarteak antolatu du Nafarroako Gobernuaren babesarekin. Doneztebeko Herriko Etxeak, bere alde, 100.000 pezetako dirulaguntza eman du.

Bortziriak, Baztan, Malerreka eta Leitzaldeko herrietatik hainbat talde azalduko dira oholta gainean.

Mikel Markez eta Amaia Zubiria kantariak eta Koldo Pastor,

Iruñeko musika bandako zuzendariak osatuko duten epaimahaiak doinua, hitzak, ahotsa, trebetasuna, interpretazioa eta kantua erekarpena hartuko ditu kontuan puntuazioa emateko orduan.

Txapelketa honen helburu nagusiak, eskal kantagintza zabaldu eta haurrei erakustea, haurren zaletasuna piztea eta kantua bidez haurrak hezitzea da. Bi mailatan banatuko dira parte-hartzaileak; txikiak, 1986tik 1990 urtera jaioak eta gaztetxoak, 1982tik 1985ra sortuak. Doneztebeko saioaren ondoren, Burlatan eta Lizarran izanen dira bertze kanporaketak eta finala Iruñan martxoaren 23an.

Doneztebeko ihauterietako mozorro txapelduna

Eskuinaldeko argazkian ageri den mozorroak irabazi zuen Doneztebeko ihauterietan mozorro politena eta originalenari emandako saria. Vespa hartuz arraultzeak biltzen dituen monje baten mozorroa zen eta ageri denez, aski itxurara polita zuen.

Bertze gainerakoan, lehiaketaz gain, giro ederra bizitu zen Doneztebeko karriketan. Gero eta mozorro gehiago ikusten dira eta horren arabera, umorea ere goxatzen dela ematen du.



Etxeak zaharberritzeko dirulaguntzak emateko deialdia luzatu du Gobernuak

Cederna-Garalur agentziaren bulegoetan jaso daiteke informazioa

TTIPI-TTAPA

Etxeetan nolabaiteko moldaketak egiteko interesa duenak zenbait baldintza bete beharko ditu. Alde batetik, etxeak 15 urte baino gehiago izan beharko ditu, elbarriendako egokitze kasuetan izan ezik. Eraberean, etxearen %70etik baino gehiagotxe bizitzarako bideratzea eskatzen da, sotoak kontuan hartu gabe. Lanaren aurrekontua milioi erditik goiti-

koa izan behar da eta etxearen berezko egitura mantendu behar da, barrendik hustu gabe eta aintzinaldea bota gabe.

Edozein moduz, jaso daitezkeen dirulaguntzak eta informazio gehiagoren berri izateko Cederna-Garalur Garapen Agentziako bulegoetara ager daiteke edo telefonoz deitu: Donezteben, 451654 telefonoa, Baztanen 580561 telefonoa eta Leitzan 610676 telefonoan.




ttipi-ttapa

82 KO UDABERRIA



TTIPI-TTAPA



ttipi-ttapa



18 zenbakia 2000ko azaroa

Familia Orientatibide eta Sexu Heziketarako Zentzuen egitura murriztua gelditzailea

Zentzuen egitura murriztua gelditzailea. Zentzuen egitura murriztua gelditzailea. Zentzuen egitura murriztua gelditzailea.

2000ko azaroa

2000ko azaroa

2000ko azaroa

2000ko azaroa

2000ko azaroa

2000ko azaroa

2000ko azaroa

2000ko azaroa

2000



Nola egiten da ttipi-ttapa?

h

amabostero 36 orrialdeko aldizkaria 6.300 etxetara ailegarazteko lana gogotik egin behar da.

Bi astetik behin, asteartetan, erredakzio kontseiluko bilera izaten da. Bilera honetan, aldizkariaren gorabeherak eta hurrengo alerako gai orokorrak (erreportaia, elkarrizketa, kolaborazioak, Gaurkotasuneko Gaia...) zehaztu eta lanak banatzen dira.

Asteazkenean, aitzineko ortziralearn bukatutako aldiz-

karia ailegatzten da inprentatik. Zenbait herrietan korreo bitartez banatzen badira ere, bertze batzuetan (Bera, Sara, Doneztebe...) banatzaile propioak ditugu eta aldizkariak eraman behar zaizkie.

Ortzegun eta ortziralearn, erredakzioako telefonoak sutan izaten dira. Elkarrizketa egin, erreportairako datuak zehaztu, 11 Galdera laburrak egiteko 'boluntarioak' topatu, Gaurkotasuneko gaiari buruz zerbait erranen duen jendea aurkitu... Erredakziotik egin daitekeen lana martxan jartzen da. Honetaz gain, ale horretan sartu beharreko publizitate moduloak apuntatu eta

bere xokoetan sartzen hasten dira. Publizitate berria diseinatu eta osatu egin behar da.

Hurrengo astelehenean herriz herriko berri emailei deitu eta berriak eta argazkiak biltzeko eguna eta ordua zehazten dira (beteko al dira?). Baserrietako prezioak osatzeko EHNERa deitu, ezkontza-jaiotza-heriotzen berri izateko herriz herri bake epaitegi edo idazkaritzara deitu... Gurpila aitzinera doa.

Astearte eta asteazkenean berriak heltzen hasten dira. Bakarren batzuk argazki eta guzti heldu dira, bertze batzuk karretearekin datoz (kasu honetan, argazki laboratorioran



Aldizkaria hamabortzero etxeeta

errebelatu eta positibatu beharko ditu argazkilariak). Herrietako berrietaz gain, gai orokorrak ere akituxeak daude eta ordenagailuan sartu eta maketatuak (ez beti...).

Ortzegunean hasten dira egiazko izerdiak. Honako honetaz ez du berririk topatu eta orrialdea xurian dago oraindik, bertze hark argazkia korreoz igorri zuen joan den as-

23 urteotan 1.225 ikasle pasa dira hemendik

- Forestala
- Nekazaritza
- Mekanika
- Ostalaritza (sukaldea)



Eta gainera...

gure instalazioak jende helduei ikastaroak emateko •

Bilerak egiteko • Mintzaldiak emateko • Udan ingeles eta euskara ikastaroen egoitza gisa...

eta beste mila gauzetarako aprobetxatu dira.

Aurrerantzean ere horrela izanen da

SAN MARTIN ESKOLA

ORONOZ-MUGAIRI • © 948-592006



10 jende ugarik egiten dute lan

tean eta ez da oraindik ailegatu... hasiera batean sartu behar zen publizitatea ez da oraingoan sartzea komeni eta ezetz erran zuen hark, orain lehen baino haundiagoa nahi du eta bete-betea dagoen herriaren beheko aldean, gainera. Ordenagailuan maketatzen aritzen direnak, lekurik ez dagoen tokian xoko bat egiten dute eta hutsean dagoen orrial-

derako zerbait topatzen dute. Pixkanaka orrialdeak osatzen doaz.

Ortzegun arratsean aldizkaria akituxea dago. Inpresoraren bitartez paperezko probak ateratzen dira, akatsak zuzendu (ez guzkiak) eta argazkiak bere lekuetan sartzen dira. Gehienetan, halere, zerbait falta da.

Ortziralean erlojuaren kontrako proba izaten da. Egurdiko autobusean bidali behar da aldizkaria Iruñeko Ona inprentara eta oraindik hango eta hemengo berriak ailegatu gabe eta azalaren itxura gutziz moldatu gabe. Korrika eta presaka azken moldaketak egin, aldizkariak daraman materiale guzia (argazkiak, maketak, publizitate logotipoak...) ordenagailutik disko optikora pasatu eta laisterka autobusa hartzera (noizbait Oronozen hartu izan dugu)

Hurrengo astelehenean ordenagailuko aldizkaria artxibatatu eta asteartean Erredakzio Kontseiluko bilera. Berriz ere gurpila martxan jarriko da. Asteazkenean ikusiko dugu lanaren emaitza. ●

Zuk ere parte hartu...

rakurle ezezik, zuetako aunitz, une batean edo bertzean TTIPI-TTAPANEN laguntzaile izan zarete: eskutitzak bidaliz, kolaborazioak idatziz, bertsoak edo errezetak eginenez, telefonoz deitu eta zerbaiten berri emanez, gai bati buruzko kontuak idatziz... Guretzat ezinbertzekoa da zuekin harreman zuzena izatea, aldizkariaren lana ahalik eta hobekien betetzeko. Horretarako zenbait aholku dituzue ondorengo lerroetan.

- Normalean, ortzegunean edo ortziralean etxean jasotzen duzun alea aitzineko astean eginga dago. Beraz, zerbaiten berri eman nahi baduzue, aldizkaria noiz karrikatuko den kalkulatu eta aitzineko ortzeguna baino lehen iragarri beharko duzue.
- Jendaurreko ekintzak:

solasaldiak, mahainguruak, inaugurazioak... ortzeguna baino lehen eginez gero aukera gehiago dute hamabostaldi horretako aldizkarian ateratzeko.

- Eskutitzak argitaratzeko arauak bete egin behar dira. Nahiz eta goitizenez sinatua agertu TTIPI-TTAPAN, erredakzioaren egilearen izen-deitura eta telefonoaren berri jakin behar dugu. Eskutitzak laburra behar du izan. Bertzenaz, ez da argitaratuko edo guk laburtu beharko dugu.

- Antolatzen duzuen edozein ekintzaren berri lasai eta denboraz eman gainera. Bertzela zaila izaten da guk hori jakinaraztea.

- TTIPI-TTAPAREKIN harremanetan jartzeko biderik egokienak telefonoa eta faxa dira: 631188 eta 631291. Posta elektronikoa ere erabil dezakezu: ttipi@encomix.es edo ttipi@mail.sendanet.es

"TOKI-ONA" INSTITUTUA

EUSKARAREN ALDE...

LANBIDE HEZIKETA

BATXILERGOA

D.B.H. (ESO)

MATRIKULATZEKO

APIRILEAN

Tfnoa: 948.630411

Nola ordaintzen da ttipi-ttapa?

batek baino gehiagok luzatu duen galdera da hori: sosik pagatu gabe nola ailegatzten da aldizkaria etxera?

Nola ordaintzen da? Noiz hasiko zarete kobratzen?

TTIPI-TTAPAREN helburua Nafarroako mendialdean eta Saran ahalik eta jende gehiena euskaraz leitzen jartzea izanik, herri horietan aldizkaria debalde banatzearen aldeko apostua egin zuen 90. hamarkada hasieran. Gastuak, ordea, izan badaude eta ho-

riek estaltzeko bi dira diru-sarrerara nagusiak: alde bate-tik, aldizkariak berak sortzen dituen diru-sarrerak (publizitatea, lan-komertzialak, eskualdetik kanpo banatzearen kobratzen diren harpidetzak...), eta bertzetik, diru-laguntzak (Nafarroako Gobernua, udal eta mankomunitateak, herrietako elkarteak...).

Joan den urtean, errate batera, 29 milioi pezetako aurrekontua genuen, 1.160.000 libera, alegia. Dirutza horretatik %55a TTIPI-TTAPA berak sortu zuen, eta gainerako %45a, dirulaguntzei esker estali zen.

1996ko DIRULAGUNTZAK

UDALAK	Eskatutakoa	Hartutakoa
Areso	147.224 Pta.	20.000 Pta.
Baztan	3.266.419 Pta.	500.000 Pta.
Bortzirietako Euskara Mank.	3.756.624 Pta.	3.589.028 Pta.
Goizueta	419.021 Pta.	250.000 Pta.
Leitza	1.386.481 Pta.	900.000 Pta.
Malerrekako Zerbitzu Mank.	2.405.728 Pta.	1.000.000 Pta.
Sara	-	1.000 Libera
Urdazubi	226.498 Pta.	50.000 Pta.
Zugarramurdi	147.223 Pta.	20.000 Pta.
Nafarroako Gobernua	8.200.000 Pta.	8.200.000 Pta.
Beste dirulaguntzak	-	243.000 Pta.



BAZTAN BALLEKO UDALA

ELIZONDO (Balleko Herriko Etxea), ALMANDOZ, ANIZ, ARIZKUN, ARRAOIZ, AZPILKUETA, BERROETA, ZIGA, ELBETE, ERRATZU, GARTZAIN, IRURITA, LEKAROZ, AMAIUR ETA ORNOZ.



Baztango berriak euskaraz emateagatik, esker mile ttipi-ttapa

**DONEZTEBEKO
SAN MIGUEL**

ESKOLAK

ETA

DBHko INSTITUTUAK

HAUR HEZKUNTZA

LEHEN HEZKUNTZA

ttipi-ttapa zoriontzen dute
Segi Euskara indartzen!



**LEKAROZ
ELIZONDO
B.H.I.**



***BIGARREN HEZKUNTZA, GOI eta ERDI
MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK, GIZA
BERMA PROGRAMAK, HEZIKETA BEREZIA***

ZORIONAK eta ESKERMILE
Segi bide hori jorratuz!



1.zenbakia (1982)



24.zenbakia (1988)



29.zenbakia (1990-1-3)

Azala eta mamia...

Idazmakinatik Internet-era

tTIPI-TTAPA aldizkariaren historia laburra aipatzen hasiz gero, lehenik eta behin, hiruhilabetekari gisa sortu zela erran beharko genuke. Lehen alea, 1981eko ne-guan argitaratu zen. Offset-ez erreproduzitua, berrogei orrialdekoa, zuri-beltzean eta idazmakinatik idatzirik testuekin diagramatua.

Osagarri grafikoak marrazkiz eta argazkiren batez osatuak zeuden batez ere. Tirada lauhun alekoa izan zen eta nagusiki Bortzirietan banatu zen.

Aldizkaria ez zen kultur elkarteko edo bertze inolako erakunderen babespean sortu. Ideiaren bultzatzailea, hamar bat pertsonen osatutako laguntaldea (GU taldea) izan zen. Geroago, TTIPI-TTAPA izena eramane zuen Kultur Elkartea sortuko zen, 1984an zehazki. Hasieran hizkuntza bultzatzea

izan zen soil-soilik aldizkaria argitaratzearen justifikazioa. Aldizkariaren edukina eta aldizkaria nagusiki informazio-esparrukoa izatea ez zen garbiki planteatu beranduago arte.

Lehen garaiak

Aldizkariak ez du lokalik izan denbora dexteantean. Bultzatzaileak dira asti librean aldizkaria egin egingen dutenak eta ez da inor iharduerahori egiteko ordainduta egonen. Edukinari dagokionez, lehen aleak bereziki, bertako kontu zahar, erreportaia, elkarrizketa, komiki, marrazki, denborapasa eta literatur lanez osatuak zeuden, batez ere. Hasieran ez dago sail definiturik eta guztia nahasia eskainiko da. Denborarekin eta arian ariaz, edukin sailkapena indartzen joanen da eta fase honen azken urteetan, sail definituagoak eta indartsuagoak soslaitzen eta gauzatzen joanen dira. Horrekin batera, herrietako informazioa pun-

tualak eta gaurkotasuneko erreportaiek eta elkarrizketek gero eta leku gehiago hartuko dute, eta aldi berean, kontu zaharrek, sormen-lanek eta, oro har, literatur lanez indarra eta interesa galduko dute bertze sailekin konparatuz.


Esparruari dagokionez, hasieran batez ere Bortzirietan banatzen zena, denborarekin bertze eskualde batzuetara ere zabaltzen joanen da: Maierreka, Baztan eta Leitzaldea. Zabaltze eta hazkunde-prozesua bizi du aldizkariak. Denboraldi honetan, 1981etik 1989ra, aldizkarian ez da publizitate agertuko. Ez ziren inoiz 700 ale baino gehiago argitaratu. Horietatik 150 harpidedunak ziren eta gainerakoak eskualdeko liburudenda, ostatu eta dendetan jartzen ziren salgai; banaka batzuk, Iruña, Donostia eta Irungo liburudendetan.

Egitura berria

Bertze tokitan martxan zeuden esperientzia ezberdinen

berri izateak (Arrasate Pressen esperientzia batez ere) aldaketa eta eraberritze-prozesua nabarmenki azkartuko dute. 1989ko udazkenean aldizkariaren egitura osoa goitik behera birplanteatu egingen da eta emaitza gaur eguneko hamaboskaria izanen da.

Kazetel egitura berri bat jarriko da martxan. Hasteko, argitalpenaren maiztasuna hiruhilabetekari izatetik hamaboskari izatera pasako da. Soil-soilik harpidetza bitartez banatuko da eta, horrekin batera, debaldeko aldizkaria izatera iraganen da. Horretarako publizitatea sartuko da eta instituzioen laguntza ere nahitaezkoa izanen da. Lehen aldiz hiru kazetari lotuko zaizkio profesionalki kazetel zereginetari. Hauxe gain, hemezortzi berriemaillez eta hamarren bat kolaboratzailez osatutako taldeaz antolatuko da hamaboskaria. Horretaz aparte, ekipo informatikoa eta argazki laborategi batez hornituko da aldizkaria. TTIPI-TTAPAREN



55.zenbakia (1991-II-7)



189.zenbakia (1996-IX-12)



138.zenbakia (1994-VII-14)

Azalean isladatzen dira TTIPI-TTAPAK izan dituen aldaketarik nabarmenenak: 1981etik 1989ra marrazkiz, ipuinez, bertsoz eta gisako kontuez osatzen da, nahiz eta pixkan-pixkan gaurkotasuneko erreportai eta elkarrizketak eta herrietako kronikak eskainiko diren. 1990ean (29. alearekin) hamabostekari bihurtuko da TTIPI-TTAPA eta herrietako berriei garrantzi berezia ematen zaio. Geroxeago, lau urtez mantenduko den azal-egitura zehazten da. 1994ko urte hasieran (125. alea), aldizkariak bere historian izan duen aldaketarik nabariena ezagutuko du. Azal eta kontrazalean kolorea sartuko da eta barneko orrialdetan bi kolore erabiliko dira. Azken aldaketa, joan den urteko udan egin zen. Azalean argazki soila agertu beharrean, informazioa ere sartu zen, egunkari itxura emanez. Kultura orrialdea eta urtebetetzeak argazkiz zoriantzeko saila ere sartu ziren, arrakasta handikoak biak ere.

erredakziotik, kazetaren fase guztiak zuzenki kontrolatuko dira, inprentarena ezik. Aldizkariaren taxuketa berri honen arrakasta ikaragarria da: 1990eko lehen hamabostekariak 1.500 aleko tirada izan zuen eta urtebete beranduago, 1991ko otsailan 4.000 harpidedun zituen TTIPI-TTAPAK.

Hamarkada honetan 1.500 harpidedun izatetik 6.300 izatera pasatu da aldizkaria

Esparru geografikoari dagokionez, sei eskualdetara—guztira hogeitabost udalerrietara—zabalduko da; Baztan, Bortzirriak, Bertizarana, Leitzaldea, Mallerreka eta Saraldea. Informazio lokalak eta eskualdeko markatu-ko dute aurrerantzean aldizkariaren ibilbidea. Tinta ba-

karrean inprimatuko da eta besteak beste, hamabostaldiroko agenda, herrietako berriak, eskualdearekin zerikusia duen erreportaia, elkarrizketa, kirola, osasuna, hezkuntza, denborapasa eta irakurleari eskainitako sailak ziren aldiro agertzen zirenak. Egitura hau lau urtez mantenduko da, 1994. urte hasiera arte. Garai horretan, dagoeneko 5.600 harpidedun zituen hamabostekariak.

Kolorea...

Edukiari dagokionez, hamarkada hasierako izan zen aldaketarik nabarmenena, baina itxura aldetik, 1994. urte hasieran pausu berri bat eman zuen TTIPI-TTAPAK: Azala koloretan argitaratzen hasi zen, barneko orrialdetan bi kolore sartuz. Harpidedunek, gainera, bere poltsatxoan sartua jasotzen du aldizkaria. Kolorearekin batera, barnealdean sail berriak sartu ziren (Gaurkotasuneko gaia, Prentsatik bildutakoak), bertzeak berritu eta itxura aldatu zuten.

...eta Internet

1996ko oporren ondotik gertatu zen TTIPI-TTAPA aldizkariaren azken aldaketa nagusia. Azalean, argazki soilaz gain, testua eta informazio gehiago azaldu zen, egunkariaren itxura emanez. Barnealdeko orrialdetan berriz, zenbait aldaketa izan ziren. Alde batetik, 32 orrialdetik 36 orrialde izatera pasatu zen. Iritzi saila indartu zen, kolaborazioei tartea utziz, Kultura orrialdea sortu zen eta Merkatu Tikia indartu zen. Honen barnean, urtebetetzeak argazkiekin zoriantzeko tartea utzi zen, bapateko arrakasta izan duen saila, hain zuzen. Gaur egun, 6.300 ale argitaratzen dira.

Paper gaineko aldizkariaren egindako aldaketa hauekin batera, TTIPI-TTAPAREN edizio elektronikoa martxan jarri zen aldizkaria mundu osora zabaltzeko, Nafarroako Internet elkartearen laguntzarekin. Errate baterako, bertakoak izanik eta lana, ikasketak edo bertze edozein arrazoiengatik gure herrietatik kanpo bizirik diren lagunek, hemengo aktualidadea puntualki segitzeko aukera izaten dute Interneteko TTIPI-TTAPAN. Kontutan hartu behar da, gainera, Internetek bi norabide dituela, eta informazio har-tzailea informazio emaile ere izan daitekeela. Honela, hila-betero 400dik gora dira TTIPI-TTAPA elektronikoen dute-nak (150 estatu espainoletik, 200 Amerikatik eta 50 gehi-go munduko bertze tokieta-tik) eta hainbat izan dira posta elektronikoen bidez jada hartu ditugun mezuak. ●

**Ahalegina
bihotzez
eskertuz**

**ZORIONAK eta...
AUNITZ URTEZ!**



Malerrekako Mankomunitatea
© 451746 • Faxa: 451770
Merkatarien karrika 27 • **DONEZTEBE**

Urtez urt bildutako

1982



baztandarrari omenaldi eder bat eskeini ziotean (...) Elias bete zen, Baztango pilotari gazteek inguratu zutenean.

Almandozko pilotariari omenaldia
84ko Abendua (10.zkia)

pentsatu eta hortan gelditu ginen. Horrela, sei emakume elkartu, joariak paratu eta pausua hartuz aritu ginen»

Iturengo lehenengo emakume joaldunak
86ko Apirila (15.zkia)

«Ea Mundialaren ondotik profesionaletan hasten naizen eta ea hoberenetara ailegatzten naizen, nere ilusioia, ea atzelari on bat ateratzen naizen».

Inaxio **ERRANDONEA**
Alkaiegako pilotaria
1982ko Irailaren 21ean



1985

Aita Jorge Riezu, kaputxinoa, laister omendua izango da bere lan eta jakintasan handiaren aitortpenean. (...) Gau eta egun lanari lotua jarraitzen du Lekarozko konbentu zaharrean.

85eko Otsaila (11.zkia)

1987

«Kisua urtero egiten genduen, eta zakuetan sartuta leretan jeisten genuen»

Patxiku eta Migel
Zubietako kisugileak
87ko Abuztua (20.zkia)

1983



San Antongo ermita uraren nibelatik 6 metrora idorrean geldituko da. Inguruetako base-riak, etxeko ur zikinientzat hobi septikoak egin edo erreka beheiti bota beharko dituzte.

Lesakako San Anton
presako lanak hastear
83ko Eguberriak



1988

1984


Baztango ikastolak eta CDB elkarteak pilotari berezia izan den Pierola

1986

«Beno ba aurtan zera, igande arratsaldean eta afal antzinean atera behar genuela



1991



«Bertsolaritza, Nafarroan, orain dela hamar urte baino indartsuago dagoela uste dut»

Mikel TABERNA «Kapi»
Alkaigako bertsolaria
88ko Ekaina (24.zkia)

1994



«Merkatuak ordaintzen dituen prezioekin Nafarroan ez dago errentagarri den baserririk»

Mikel PETRIENA
Nafarroako EHNE
1991-V-23 (62.zkia)

«Jendeak uste du espetxe batean gaudela, baina gu ez gara espetxean sentitzen»

Olatz GARMENDIA
Donamariako karmeldarra
1994-IX-8 (141.zkia)

1989



«Ai Ramon giza-raixoa, inork ezer ezin egin eta zu hortxe gorputza hautsita, bihotza puskaturik...»

Iñaki Perurenak leitzar-
rrak Latasa aizkolaritari
Elizondoko Zaharretxean
bisitatu ondotik
89ko Azaroa (28.zkia)

1992



«Frantziak desastre izugarria egin zuen eta guk aukera historiko bat galdu dugu Bar-tzelonako Olinpiadetan urrezko domina lortzeko»

Mitxel TXOPERENA
Igantzi pilotaria
1992-IX-17 (93.zkia)

1995



«Hogei urtetan satisfakzio haundiak eman ditit pilotak, lagun aunitz egin ditut eta dena positiboa izan da»

Antton MAIZ
Arantzako pilotaria
1995-III-2 (153.zkia)

1990



«Tabernetan mozkortzen ibili beharrean, ba biltzeko toki bat izatea hobe zela uste genuen».

Leitzako Gaztetxeoak
1990-II-15 (32. zkia)

1993



«Krisi ekonomikoa asteburutako marxan nabaritzen ari gara, Bordatxora ere ailegatu da»


Tomas EZKURRA
Bordatxoko sozioa
1993-IV-8 (107.zkia)

1996



«Integrazio arras ona lortu dugu. Zenbat eta harreman gehiago izan orduan eta bazter-tze gutxiago izaten baita»

Elizondoko Hezkuntza Bereziko Taldea
1996-VI-20 (184.zkia)



*Mila esker
euskara eta
euskal kulturari
eman diozuen
bultzadagatik*



telefonoa 63 41 25
ARANTZA (Nafarroa)

**Arantza
Bera
Etxalar
Igantzi
Lesaka**

ttipi-ttapa

Etxe xoko guzietan!!

HEDAPENARI BURUZKO DATU KONPARATIBOAK (1997/02/27)

	Diario de Navarra	EL DIARIO VASCO	egin	DEIA	Egunkaria	Noticias	SUD OUEST	ttipi-ttapa
BAZTANALDEA	394-542	81-109	81-115	7-7	25-27	131-185	0-0	1.561
Baztan ⁽¹⁾	361-509	81-109	77-109	7-7	25-27	125-185	0-0	1.394
Urdazubi	23-23	0-0	3-5	0-0	0-0	3-0	0-0	84
Zugarramurdi	10-10	0-0	1-1	0-0	0-0	0-0	0-0	83
BORTZIRIAK	147-211	646-854	153-200	11-12	44-49	63-70	0-0	1.973
Arantza	3-3	10-10	6-5	0-0	4-4	2-4	0-0	171
Bera	68-115	343-470	75-95	1-2	13-20	26-28	0-0	864
Etxalar	17-18	28-29	16-17	1-1	5-5	8-9	0-0	184
Igantzi	11-11	45-65	4-10	0-0	4-4	5-6	0-0	150
Lesaka	48-64	220-280	58-73	9-9	18-16	22-23	0-0	604
LEITZALDEA	83-169	103-150	94-165	3-3	17-23	29-29	0-0	968
Arano	-	-	-	-	-	-	-	42
Areso	8-9	0-0	6-0	0-0	0-0	0-0	0-0	57
Goizueta	0-0	35-55	26-90	0-0	8-10	2-2	0-0	209
Leitza	75-160	68-95	62-75	3-3	9-13	27-27	0-0	660
MALERREKA	230-401	112-168	51-68	1-3	14-13	58-65	0-0	1.220
Doneztebe	153-201	87-142	36-45	1-3	10-10	29-35	0-0	320
Ituren	0-0	0-0	8-12	0-0	1-1	0-0	0-0	118
Sunbilla	38-60	25-26	6-10	0-0	1-0	23-24	0-0	177
Herrietan ⁽²⁾	40-40	0-0	1-1	0-0	2-2	6-6	0-0	605
SARA	0-0	6-6	6-6	3-3	5-5	0-0	250-250	125

HEDAPENA ZENBAKITAN

Lehen kopurua asteguneko banaz bestekoari dagokio, bigarren kopurua igandetako banaz bestekoari.

DEIA	25 - 28
Egunkaria	105 - 117
SUD OUEST	250 - 250
Noticias	281 - 349
egin	385 - 554
EL DIARIO VASCO	948 - 1.287
Diario de Navarra	854 - 1.323
ttipi-ttapa	6.264 ⁽³⁾

*Saltoki eta
posta
zerbitzutik
eskuratutako
datuen
arabera*

⁽¹⁾ Baztango herri guzietako kopuruak batera emanak daude, korreoz hartzen direnak barne.

⁽²⁾ Malerreka eta Bertizaranako herri guzietako kopuruak batera daude, Doneztebe, Ituren eta Sunbilla izan ezik, korreoz hartzen direnak barne.

⁽³⁾ Harpidedun guziak, eskualdetik kanpokoak barne.

Urte askotarako, segi aurrera!

**Leitza-Larraun
eta Ultzamaldeko
Euskara Zerbitzua**

SAN FRANCISCO JAVIER Ikastetxe Publikoa
• ELIZONDO •



ESKOLA PUBLIKOA AURRERANTZ!

BAZTAN, BERA eta LESAKAko IKASTOLAK



Zorionak eta aintzinerat!

"AMAZABAL" INSTITUTUA EUSKARAREN ALDE...



**MATRIKULATZEKO
APIRILEAN**

Tfnoa: 948.510280

**BATXILERGOA
D.B.H. (ESO)**

Garraiolarien huelgak bere eragina izan du eskualdeko lantegietan

Ia bi astez luzatu zen garraiolarien grebak eragina izan zuen eskualdeko lantegi gehienetan, baita dendetan ere. Halere, gehienetan onartzen dutenez, egun

batzuk luzatu izanen baltz eragina gehiago sumatu izanen zen eta zenbait lantegik bere ateak itxi beharko zituen.

Lesakako CSIn produktzioa ia erabat gel-

ditu zen eta mantentmentuko langileak soilik aritu ziren lanean.

Funberan normal aritu ziren, Palmaderan bezalaxe. Martikokoak lanean segitu zuten, errit-

mo motelagoan. Savera eta Alcon, otsailaren 20 eta 21a arte zuten materiala. Grebak segituko balu oporrak hartu beharko lituzkete langileek. Verkolen opor

egunak hartzera behartu zituzten. Harkaitza ere geldirik egon zen.

Gainerako lantegi tikieta ere nabaritu zen greba eta oporrak hartu behar izan zituzten.

Zubietan botika jartzeko bi eskari Nafarroako Gobernuan

Nafarroako Gobernuko Osasun Sailak Zubietan botika jartzeko bi eskari jaso ditu, Nafarroako Boletin Ofizialean ageri denez. Alde batetik, Ana Isabel Barbarin Garciak eskatu du eta bertetik, Iturrengo botikariak, Jose Joaquin Ruiz-Lopetegik.

Bertzalde, aipatu behar da Beintza-Labaiengo botika ere laister zabalduko dela, beharrezko lanak akitu ondok.

Iturrengo Petrikeneako zelaian zortzi etxebizitza eginen dira

Hasieran Babes Ofizialeko etxebizitzak egin behar baziren ere, eskaririk izan ezenez, udalak lur eremu hori saldu zuen. Orain lau etxebizitzako blokea eta famili bakarreko lau etxe egin gogo dira. Proiektua laister idatziko omen da.

Euskararen transmisioari...

buruz Donezteben egin behar zen erakusketak suspenditu zen, garraiolarien greba zela eta. Apirila alderako atzeratu dute eta manen dugu horren berri.

ESKARIAK PAC 1997

Alor eta Aziendentzako Laguntza Eskariak

Eskaria egiten laguntzeko zerbitzu espezializatua dugu

Rural Kutxa-ren esperientziarekin

Laborari eta abeltzainen sektorean espezializatuen dagoen erakundearen babesarekin.

Sistema automatizatua

Bitarteko informatiko modernoekin eta Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin.

Nekazari eta abeltzainei zuzendutako laguntzak

Zenbait labore-alor bultzatzeko eta baita ardi, ahuntz eta behi-haragi produktoreendako eta behi amak mantentzen dituztenendako ere.

NAFARROAKO RURAL KUTXA

GOIZUETA

120 milioiko sarrera-irteerak dituen aurrekontua onartu zuen Udalak

HBren Mahai Nazionalaren kartzelaratzeari erantzunaren salatu zen pleno berean

ESTEBAN AROZENA

Herriko Etxean burututako azken osoko bilkuran 120 milioi pezetako aurrekontuak onartu zituen ahobatez udal korporazioak. Beti gertatzen den bezala, diru sarrerarik haundiena mendien aprobetxamendutik dator, ia 27 milioi hain zuzen. Gastuei dagokienean berriz, langileen soldatak eta Segurtasun Sozialak 27 milioi gostako zaizkio Udalari. Eta gastu orokorrak (festak, argia, telefonoa, eskoletan egin beharreko konponketak eta beste) 31 milioi pezeta.

Herri Batasunako Mahai Nazionalaren kartzelaratzeari erantzunaren salatu zuen bere kide guztiak aske uztea ere eskatu zuen



Haur Kantu Txapelketa

Martxoaren Ilean Donezteben kantatuko dute Goizuetako gaztetxoek Kantu txapelketaren aurtengo edizioan.

udalak pleno berean. Zinegotzi guztien baieztazioarekin onartutako mozioak zioenez, gaur egun, Euskal

Herria eta espainiar estatuen arteko gatazkaren konponketak elkarrizketa eta Euskal Herriaren eskubideen

onarpenaren bidez etorri beharko dute. hau kontutan hartuz, espainiar estatuari deialdia egiten zaio elkarrizke-

taren bideari ekin diezaion errepresioaren bidea erabat baztertuz.

Aipatu beharrekoa da, erabaki hauen berri Espainiako Gobernuari eta Estatuaren Epaitegi Gorenari emanen diola Udalak.

Herriko Etxeko ordutegia murriztu egin da

Herriko Etxearekin zerikusia duten gauekin segituz esan, otsailaren 12az geroztik, goizeko 9,30etatik eguerdiko 1,30ak bitarteko ordutegia dutela Udaletxera edozer gestio egitera joan nahi duten herritarrek. Herriko Etxearen barne funtzionamendua hobetzea omen da publikoari ordutegia murriztearen arrazoia, al-katesak esan zigunez.

ARESO

Sokatira taldea Euskadiko txapelidun

Munduko txapelketan ere aritu da

JUANA M^o SAIZAR

Herriko sokatira taldekoak Astigarragan 600 kiloko kategorian Euskadiko txapelidunak suertatu ziren, Leitzan 680 kilotan bigarrenak eta 560 eta 640 kilotan laugarren postua eskuratu zuten.

Astigarragako urrezko domina horrek, Euskal Herriko selekzio bezala Ingalaterrako Torbay herrian larunbatean burutu den goma gaineko Munduko txapelketara joateko txartela eman die. Azken momentuan txartela lortu



600 kilotan Euskadiko txapela eskuratu dute herritarrek

zuten eta bidaia autobusez egin zuten (Manchako kanalean zehar), merkeago izateko. 15

lagun joan ziren, botilleroa eta entrenatzaile barne. Hurrengoan ematen dugu han gertatuta-

koaren berri. Martxoan berriz, Nafarroako txapelketan parte hartu behar dute.

Plazaolako Tren ttikiari buruzko erakusketa ikusgarria burutu da

Ttanttoka taldeak Emakumearen Eguna ospatuko du

JOSEBA AZPIROZ

Kultur taldeak antolatuta, otsailaren 17tik 23ra, udaletxeko areto nagusian, Plazaolako tren ttikiko erakusketa egon da ikusgai. Bertan ikusi ahal izan ditugu Plazaolaren argazkiak eta erabiltzen zituzten zenbait tresna (eskuargiak, oliontziak, txartelak egiteko makina, etab...). Bideo baten bidez tren ezagutu zuten zenbaitek beraien oroimenak ere adierazten dizkigute. Jendearentzat arratsaldez ikusgai bazegoen ere, goizez eskolako zenbait talde egon ziren ikusten. Gaur egun Ponferradan dago 1989. urterarte martxan



Erakusketa bisitatu zuen eskolako ikasle taldeetako bat

Arg.: Joseba

egondako makina hau. 3.375.468 kilometro egun zituen Plazaola eta

Leonen. Egoera penagarrian dago gaur egun eta makina Azpeitiko

Tren Museora ekartzeko tardea sortu da: "Trentxikito 31. taldea".

Udal erabakien aurkako errekurtsioak

Estatuko abokatuak Udal batzarrean hartutako bi erabakiren aurkako errekurtsioak ezarri ditu. Batean NATO erakundearen sartzeko ospatutako erreferendumean euskal herritarren gehiengoa kontra azaldu zenez, erakunde honetatik ateratzea exigi-

tzen zen. Bestean berriaz, Oskar Astibia intsumituaren ospitaleratzearan inguruan Udalak bere elkartasuna adierazi, intsumisioaren aldeko jarrera azaldu, kartzeleroen jarrera salatu eta familiari bisitatzeko eskubidea ez ukatzea eskatzen zuen.

Emakumearen Eguna ospatuko du Ttanttokak

Martxoaren lehen-dabiziko astean informazio-orri bat banatuko dute, urteko programazioa, martxoaren 8a ospatzeko arrazoiak, taldearen aurkezpena eta helburuak azalduz. Martxoaren 6an Karrapen debatea izanen da. Hiru belaunaldi ezberdinetako

emakumeak izandako aldaketaz hitz egingen dute. Martxoaren 8an afaria izanen da Torrean eta ondoren trikitilariak eta euskarakea. Gizonezkoen parte hartzea espreski eskatzen dutela azpimarratu nahi izan dute Ttanttoka taldekoek.

flash

◆ **DBHko ikastetxeko** teiatuaren moldaketa lanak Lohitzune eraikuntza enpresak egingen ditu 3,65 milioi pezetaren truke. Honela, itoxura arazoak konpondu nahi dira.

◆ **Kontzertua martxoaren 15ean** Gaueko 10,30etan Storbais, Soziedad Alkoholika, Etsaiak eta Koma taldeen kontzertua izanen da herriko pilotalekuan. Kontzertua Kirkil tabernak antolatzen du eta sarrerak aurretik hartuz gero 1.300 pezetatan salduko dira. Takilan 1.500 pta.

◆ **'Zielona Gorako'** Unibertsitateko A-besbatzako neskak joanak dira dagoeneko. Seguraski ez da inoiz hainbeste jende bildu elizan goru bat entzuteran. Gure artean egon diren astean, Asketakoen etxeetan egon dira eta ziotenez, oso gustora egon dira eta pena handiz joan dira. Halere, aurtengoa berriaz elkar ikusteko aukera izanen dute, Asketakoak Polonia-ra baitoaz urrian.

muñeca de Trapo

IRUN
Luis Mariano, 35
Tel.: (943) 62 52 55

Betiko platerrez gain, bereziak ere eskaintzen dizkizugu. Eta ezkontzea pentatu baduzu, harrituko zaitugu!

Basa Kabi
Tel. 510125 • Faxa: 610965
LEITZAko gaina

LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera ☎ 630735 • IRUN ☎ (943) 622305

FUNERARIA ZERBITZUAK
DONEZTEBEN

MALDAERREKA, S.L.

24 orduko zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irongo ospitaleetatik edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE

Uraren prezioa ez da aldatuko Elizondon Iturri-Ederra elkarteak erabaki duenez

Ia milioi terdiko superabita izan du joan den urtean

JOSEBA IGARABIDE

Uraren prezioa bere hortan mantenduko da aurten Elizondon, Iturri-Ederra Ur elkarteak urteko batzarrean erabaki zuenez. Joan den urtean, Pedro Mari Esartek zuzentzen duen elkarteak 1.413.231 pezetako superabita izan zuen. Honenbertzez, ur metro kubikoaren prezioa 18 pezetatan mantenduko da. 17.728.868 pezetakoak izan ziren diru sarrerak eta gastuak berriz, 15.315.637 pezetakoak. Gasturik haundiena Nilsari ordaintzen zaion saneamendu kanoa izan zen, ia 7 milioi pezeta.

Iturri Ederrak emandako informazioaren arabera, udalaren zorra 8.480.376 pezetakoa da.

Kontzertua larunbatean Erratzun

Larunbat honetan, martxoak 1, gaueko 11etatik aitzinera musika kontzertua izanen da Erratzuko frontoian. Korrika Kulturalaren barnean, 'Euskal Herriak izan behar du libre eta euskalduna' diska-ren aurkezpena egiteko probextuko da. *Exkixu, Otsondo 602, Txakun eta Bizkar Hezurra* taldeak arituko dira.



Iñauteriak San Francisco Javier ikastetxean

Urtero bezala, Elizondoko San Francisco Javier ikastetxe publikoko ikasle eta irakasleek, iñauteak eskola barnean, giro ederrean ospatu zituzten

Argazkia: MENA

Garraiolarien greba

Dantxarinetatik normalean baino kamioi pasa haundiagoa izan da, guardiazibilek eskoltatuta. Batzuetan konboi ikaragarriak ikusi ahal izan ziren. Oronoz eta Arraioz artean, Askape inguruan kamioiak harrikatu zituzten otsailaren 17ko gauean.

Guraso Eskola

Lekarozko institutuaren Guraso eskola sortu nahi da. Irakasleen Laguntza Zentroaren laguntzarekin eginen dute saio hau.

Orabideatik Legatera doan pista egoera negargarrian dago

Arraiozko alkateak jakitera eman duenez, Orabideako errepideetik Legateko gurutzera doan Arakan pista egoera arras kaxkarrean dago, harrobitik harri xabalez beteak jaus-tzen diren kamioien eraginez. Pistaren zolak, gurpilek markatutako zulo sakonak nabari ditu eta, dagoeneko ez traktoreak ezta 4x4 ibilgailuek ere ezin dute bertatik pasatu.

Hau dela eta, Arraiozko alkateak Balleko Etxeari egoera hau moldatzea eskatu zion, batez ere, pista hau zenbait belagietara eta nekazarietara erabiltzen dituzten lur eremu-eta joateko bidea dela jakinda.

Balleko Etxeak, Legateko harrobiko nagusiari, erabiltzen duen pista moldatzea eta gero, egoera onean mantentzea eskatu dio.

flash

- ❖ **DYA erakundeak**
68.000 pezetako dirulaguntza jaso du Balleko Etxetik, Baztan aldean egiten duen lanak sortzen dituen gastuak estaltzen laguntzeko.
- ❖ **Doike taldeak**
15.000 pezetako dirulaguntza jaso du udaletik, zenbait ekitaldi burutzeko. Euskara taldeak 85.000 pezetako aurrekontua aurkeztu zuen, diapositiba emanaldiak, haurrentzako ekitaldiak eta olerki emanaldiak egiteko, berteak berte.
- ❖ **Emakumeen afariak**
Martxoaren lehen Leharozkoak eginen dute eta martxoaren 2an, berriz, Azpilkuetakoak.
- ❖ **Espartzimendu kirolak**
antolatzeko dirulaguntza deialdia otsailaren 28an bukatuko da.
- ❖ **Amaiurko**
mediku kontsulta berritzeko 2.371.977 pezetako dirulaguntza eman du Nafarroako Gobernuak.

Ezkentzok Agurroak Afariak etab...

AKORDEOI-TEKLATULARIA
ANGEL M^o MENDIBERRI ALEMAN
Iriondo Etxea, I.D
☎ 45 33 37 • ARIZKUN

ARROPA DENDA

MERCERIA

FANTXIKE
JAIME URRUTIA, 29
TFNO. 580312
ELIZONDO

CERVANTES
HELVETIA SEGUROS

Era guzietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia

DANBORIENA

OKINDEGIA
GOZOTEGIA

☎ 453403 • ARIZKUN

BAZTAN

Bigarren mailako txapelketaren finala jokatu du Mikel Goñik

Ornoz-Mugairitik autobusa abiatuko da

Josu INZIARTE

Ornoz-Mugairiko Mikel Goñi pilotariak azken bolada honetan poz handiak ematen ari da, profesional mailan urtebete egin ondoren, bigarren mailako eskuz banakako txapelketaren finalera iritsi baita. Retegi Ilrekin harremanetan jarri da, partidu honetarako ongi prestatzeko. Orain arte txapelketan jokatuak partiduetan arras maila ona erakutsi du eta ondorioz, txapela irabazteko itxaropen handiak ditu. Aitzinean Koka izanen du, hau ere, favorito izan gabe finalean sartzea lortu duen pilotaria. Aipatu behar da, herritik autobusa antolatuta dela finala ikusteko joateko.



Mikel Goñik, profesionalean dagoenetik jokatu duen partidurik inportanteena jokatu du aste honetan Argazkia: Josu INZIARTE

Euskara eta informatika ikastaroak

Bertze gaiekin segituz, bi ikastaro ematen

hasi dira Gaztelune elkartearen. Alde batetik, euskara klaseak, lehenbiziko mailan, astean lau orduz AEKren es-

kutik. Bertzetik, informatika ikastaroa (Windows, Word, Open Acces, etabar...), astean bi orduz.

Korrikari ongiatorria eman asmoz hainbat ekitaldi antolatu dira

Korrika Kulturala dela eta hainbat ekitaldi antolatu dira Baztanen. Otsailaren 28an kale animazioa Elizondoko, arratseko 8etan, Martxoaren 4an dia-

positiba emanaldia Berroetan, 8,30etan. Martxoaren 5ean pilota partiduak Irurita eta Arraiozen. Martxoaren 7an Korrika Tikia, Elizondoko plazan, goi-

zako 11etan. Martxoaren 8an txiste-kantu afaria Amaiurren. Txiste kontari Ugutz Robles eta Ezponda arituko dira. Kantariak Xalbador eta Iodi. Martxoaren 13an mahaingurua Xorroxinen: 'Euskararen erabilera Baztanen'.

Egin egunkariari buruzko solasaldia ortzegun honetan Elizondoko

Ortzegun honetan, otsailak 27, gaueko 9etatik aitzinera Egin egunkariak bizi duen egoerari buruzko solasaldia burutuko da, gaueko 9etatik aitzinera, Elizondoko Baztan-

darren Biltzarraren egoitzan.

Bertzeak bertze, kriminalizazio kanpainaz, egunkariaren egoera sozio-ekonomikoaz eta Hitz Egin herri ekimenaz arituko dira.

flash

Odol-emaileen besta

Martxoaren 2an Baztan, Zugarramurdi eta Urdazubiko Odol Emaileek elkarren arteko besta ospatuko dute. 2etan Elizondoko Santxotengan izanen dute bazkaria. Ondoren elkarrearen txostena aurkeztu, dominak banatu eta lehendakariaren informea irakurriko dute.

Putreek behi bizia erasotu?

Goizeko 11etan bizirik ikusi zuen Amairuko Alemantto-neako nagusiak bere behia, erditzeko puntuan. Bi ordu beranduago putreek jaten ari ziren eta aretze jaio berria bertze behiek babesten zuten. Abeltzainaren ustez, behia etzanda eta bizirik zegoenean erasotu zuten putreek.

BODEGAS ERRASTI, S.L.
Bodegas Gailur
 ARABAR ERRIOXAKO ARDOAK
 GETARIAKO TXAKOLINA
 Zonarako banatzailea
TXOPORRO Ardoak
 M. Azpilkueta, 6 • ELIZONDO
 © 58 02 78

ZURE ARGAZKIAK
 ORDU BATEAN EGITEN DITUGU

FOTO MENA
 KALE NAGUSIA 4
 TEL. ETA FAX: 45 08 25
 DONEZTEBE
 SANTIAGO KALEA 40
 TEL: 58 01 55
 ELIZONDO

IA 100 URTE
 KALITATEA ETA
 PROFESIONALITASUNA
 ESKEINIZ

ttipi-ttapa
 6.300 harpidedun
 22.000 irakurle

631188

ZUGARRAMURDI - URDAZUBI

Garraiolarien grebaren eragina sumatu da Dantxarinean eta dendetan

Otsailetik aitzinera Urdazubiko kontsultan egin daitezke odol eta gernu analisiak

MARGARI ETA KORO

Kamiolarien greba ere nabari izan da herrian. Nahiz eta sobera eraginik ez izan, hala ere sumatu da kasu zenbaitzutan: zerrikumeak ezin izan ziren bidali, gas-kamioia ere ez zen etorri, dendetan ez zegoen fruiturik... hala ere beldurra ez da handia, kontutan hartuz zernahi erosteko edo hor dugula Senpereko supermerkatua. Kezkagarriena gasaren falta izanen litzateke, bertze aldeko gas botoiak ez dutelako hemengoz baliu. Herriko kamiolariak ere geldirik zeuden, esne-biltzaileak ezik, hauek pase berezi batzuekin ibiltzen zirelako. Nekazariak, erran dugun bezala, zerrikumeak ez biltzetik aparte, esne biltzea eta pen-tsu hartzea segurtatua



Behi-esnea biltzeko pase bereziak zituzten kamiolariek

izan zuten beti. Bertzalde, lehenbiziko egunetatik Dantxarinean pikete bat egon zen Iparraldetik zetozen kamioiei ez pasatzen uzteko eta kasu batean errepidean kamioi bat trabeskaturik eta dena kontu zuten. Halere,

egunero pasatu ziren eskolta duten konboiak, batzuk ikaragarri luzerak gainera. Adibidez, halako batean 160 kamioiekoa pasatu izan zen.

Greba hunek bertze moduko garraio bat sortu du: helikopteroz egi-

ten dena. Kasik aste batez, egun guztietan izan ditugu buru gainean tresna hauek, beren burrunba aspergarriarekin. Oren laurdenero edo pasatzen ziren, Malkor eta Urbia mendien artetik agertzen dira (Iruña aldetik) eta Hendaia al-

dera segitzen zuten, ez dakigu noraino.

Odol eta gernu analisiak Urdazubiko kontsultan

Kapitaletako zerbitzuak hurbiltzen ari zaizkigu. Lehenbizikoak banketxeak izan ziren. Duela denbora guti arte Dantxarinean bat baik ez zen izaten eta gaur egin lau daude.

Orain, otsailetik hasita, analisiak egiteko aukera ere hurbilago daukagu. Orain arte Elizondora gan behar baginuen, hemendik aintzin Urdazubiko kontsultan egiten ahalko ditugu. Ortziraleroko, goizeko 9etan, Bernardet herriko erizainak odola eta gernua biltzen ditu: gero emaitzak medikuari zuzen ailegatzeko zaizkio.

Elizatzte
ERLOJUTEGI BITXITEGIA
Nafarrentzat prezio bereziak
 Landetxe Enparantza © 943.492698 OIARTZUN

ARIN ASEGURUAK

- Kotxeak
- Kamioiak
- Etxebizitzak
- Enpresak
- Istripuak
- Bizitza
- Aurrezkia
- Bertzeak

Parrokia 21
 Tel.-Fax: 450266
 DONEZTEBE

Xorroxin Irratiko zozketa

Xorroxin Irratiak Eguberrietan zozketatutako 50.000 pezetak Elizondoko Javier Aragonentzat izan ziren. Joan den astean eskuratu genuen argazkian ageri da sariaren irabazlea, Izaskun eta M^a Angeles, Xorroxin Irratiko lankideekin batera.

Argazkia: MENA



Martxoaren 9an Jean Louis Maitia presoaren aldeko sustengu kantaldia

Oskorri, Niko Etxart, Ducau eta Philipps eta Saiberri kantari izanen dira


JACQUELINE ETA MIXEL

Jean Louis Maitia oso ezaguna da kultur eta hezkuntza arloan eta bortz hilabete daramatza preso. Bere aldeko kanpaina bat abiatua da eta martxoaren 9rako antolatu den sustengu kantaldia hortan sartzen da. Hortan parte hartuko dute Oskorri taldeak, Niko Etxart, Mixel Ducau eta Carolyn Philipps-ek, Saiberri Sara-ko taldeak eta bertze zonbaitek ere.

Erran gabe doa jendearen partehartzea beharrezkoa dela mezuak indarra ukaiteko.

Rock jaialdia Omordian

Otsailaren 14an Gaztetxeak rock jaialdi bat antolatzen zuen Omordian eta nahiko arrakastatsua geratu zen,



300 lagunek parte hartzen zutela eta. Bertan aritu ziren *Desastre Naturala*, ikastolako ikas-

lez osaturik eta hain xuxen Xan Laplace bateria jolea zutela, *Rigor Mortis* Baztanetik jina

Ihauteriak ospatuak

Otsailaren 8 eta 9an iragan ziren usaiako giro alaian. Larunbatean 30 bat gazte ibili ziren Hegtegitik barna gainez gain Granadako zubiraino itzuliz eta Lehen-bizkaitik plazara itzuli ziren. Gaua ezin hobeki joan zen. Igandean eguerdiarian gazte mozorrotuak eta Zazpiak Bat dantzari taldekoek plazako bazterrak mugiarazi zituzten. Ospakizun hauetaz gain haur aunitz ibili ziren etxe etxe eskean, bertako ohitura zahar bat berpiztuz. Haur horiek molde berezi batez prestatuak ziren.

Herriko Etxeak gonbidaturik, 130 adineko bildu ziren Omordian, oturuntz baten inguruan. Arratsalde goxo baten pasatzeko parada ukan zuten eta bazkari ezin hobe baten preziazteko.

Bertsu saioa

Otsailaren 16an, hamazazpigarren bertso saioa nahiko aberatsa ateratu zen, bai bertsozaleen aldetik, 120 bat lagun biltzen baitziren, baita bertsolarien aldetik ere. Hauek aldi onean izanki eta, bertsu eder eta zorrotzak kantatu zituzten. Gaiak arabera-koak ziren, ikusiz Euskal Herriak bizi dituen oren latzak eta Daniel Landartek aurkeztu gaiekin, bertsolariak hautako mamia lantzeko ukan zuten eta erran beharrak ongi erran zituzten.

eta OST bizkaitarrak.

Adinekoen bazkaria

Otsailaren 8an eta



ARMUA
Jatetxea

Zugarramurdiko karretera 3. Km
Tfnoa.: 59 91 31 - URDAZUBI



Gierresenea
OSTATU - JATETXEA
Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa

Iturriotz Auzoa • © 592043 • ORONOZ-MUGAIRI

HERRIKO ETXeko EDANTEGIa

Michel eta Kattin
Guerendiain

Tfnoa: 59 54 25 19 • SARA



BAZTAN

ALTZARIAK
zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mogleak
- Estiloko mogleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztaina eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA



ZUBIRIA
MINDEGIAK

- Etxeak apaintzeko landareak
- Baso landareak
- Bertako frutondoak

ARRAIOZ • NARBARTE
Tfnoak: 452032 (bulegoan) • 592034 (etxean)
Faxa: 581274

EZKONTZAK

Ignacio Agara Alzuguren eta **M^a Irantzu Silva Zalbide**, Bera eta Bilbo-koa, otsailaren 5ean.

JAIOTZAK

Beatriz Maritorea Ganboa, Doneztebekoa, otsailaren 11n.

Andrea Lizasoain Uterga, Elizondokoa, otsailaren 7an.

Silvia Bengoetxea Sapuppo, Arraiozkoa, otsailaren 10ean.

Joseba Aldaia Garmendia, Beintza-Labaiengoa, urtarrilaren 4ean.

Ibon Rey Ortiz, Berakoa, otsailaren 7an.

Iker Iturria Ponbar, Berakoa, otsailaren 6an.

Aiora Biurrarena Bertiz, Berakoa, otsailaren 14an.

HERIOTZAK

M^a Dolores Urdanabia Zozaia, Oieretikoa, otsailaren 9an, 82 urte.

M^a Rosario Gorbeña Renovales, Elizondon, otsailaren 12an, 85 urte.

Lorenzo Zelaieta Endara, Berakoa, otsailaren 31n, 85 urte.

Juan Fagoaga Goia, Berakoa, otsailaren 4ean, 68 urte.

Virginie Saldies, Sarakoa, otsailaren 15ean, 79 urte.

Koxe Marie Zubiri, Sarakoa, otsailaren 13an, 62 urte.

Jeanne Destouet, Sarakoa, otsailaren 2an, 89 urte.

Gloria Montalvo Gonzalez, Lesakan, otsailaren 15ean, 83 urte.

Leocadia Mikeo Urrutia, Lesakakoa, otsailaren 19an, 86 urte.

Gure opari berezia
jaio berriendako



IRUÑEKO KUTXA

ttipi-ttapa

1996ko azaroak 4 • 185. zenbakia

Elkarizketa
Amela ALTxu
Ereporoia
Kukumiku 96



**Bidali TTIPI-TTAPA
herritik kanpo
bizi diren
lagun edo familiakoei**

Bakar bakarrik bidaltze gastuak ordaindu behar dira.


Eskatu informazioa.

631188

Martxoan hasiko da Nafarroako Bertsolari Txapelketa

Finala Sunbillan izanen da apirilaren 13an

Martxoaren 9an Senperen ospatuko den kanporaketarekin abiatuko da Nafarroako Bertsolari txapelketaren edizio berria. Denetara 18 bertsolarik eman dute izena aurtengo txapelketarako, baina hoietatik 8k bertzerik ezingo dute Sunbillako finalean abestu. Partehartzaileei dagokienez, Mikel Altzuart bertsolari baztandarraren debuta da azpimarragarriena. Arrosagarai iparraldeko bertsolariaren itzulera ere aipatu behar dugu, urte dexente txapelketatik kanpo egon ondok. Kanporaketei dagokienez,



Jexux Arzallus, iazko txapelduna


erran bezala Senperen izanen da lehenbizikoa, eta aipatu ditugun Altzuart eta Arrosagaraiarekin batera honako lau bertsolari arituko dira: Xabier Silveira, Josema Leitza, Oskar Estanga eta Bittor Elizagoien. Bigarren kanporaketa Zizur

Nagusian ospatuko da eta Jexux Arzallus, Xabier Legarreta, Manolo Arozena, Ekintza Landa, Nerea Bruño eta Antonio Olanok neurtuko dituzte indarrak. Azkenik, Luzaiddek hartuko du hirugarren kanporaketa, martxoaren 23an,

hain xuxen. Egun horretan, Estitxu Arozena, J.P. Mendiburu, Iñigo Olaetxea, Laka, Fernan Mihura eta Estitxu Fernandez txanda etorriko da, finalerako pasea lortzeko lehian. Kanporaketa hauetan garaile gelditzen direnek Sunbillan ospatuko den finalerako txartela jasoko dute automatikoki, eta bigarren postua eskuratzen dutenek semifinalean abestu beharko dute, 8 hoberenen artean egon nahi badute. Finalerdia apirilaren 6an izanen da Lekunberrin, eta finalerako 5 plaza egonen dira jokoan egun horretan.

Epaimahaikideen esku geldituko da finalera pasatuko diren bertsolariak aukeratzea, eta lan hori egitea Mikel Bujanda, Mixel Etxegoin, Patxi Larretxea, Joxe Urroz, Beñat Soule eta Jon Abrili egokitu zaie aurtengoan. Saioak aurkezten Mikel Taberna eta Mikel Erramuzpe ariko dira.

Finalera ailegatzeko diren bertsolariantzako lana haxe izanen da: 8ko Haundian eta 8ko ttikian 3na bertso ofiziokoa, 2 puntu erantzutea, Mainontzin 3na bertso ofiziokoa eta akautzeko gartzelako gaia.



Mikel ALTZUART
Arizkungo bertsolaria

«Nere burua probatzera joanen naiz Senpererat»

Zure lehenbiziko txapelketa izanik, zergatik eta ze asmorekin hartuko duzu parte? Txapelketetan, bertsolariek postua onartzea izan ohi dute helburutzat, baina ni nere burua probatzera joanen naiz Senpererat, parte hartzera. **Lehenbiziko kanporaketan, bertsolari haundiak izanen dituzu ondoan. Errespetua, beldurra... zer somatzen duzu?** Bertze bertsolariei ez diet beldurrik, nere bertsoa osatzeak ematen dit beldurra, emandako gaiari

etekina, xukua ateratzea. Bertzetik mikrofonoari, jendeari beldurra izatea normala da, baina Senperekoa bezalako leku tiki batean berotasun gehiago dago, eta publikoarekiko komunikazioa hobetu egiten da, buruari ere aisago eragiten zaio. **Txapelketa honetarako prestaketa bereririk egin duzu?** Nahiko nukeena bainan guttiago. Asteartero Zaldiko Maldikon biltzen gara Bittorrekin-eta, afaldu ondok bertsotan aritzeko. **Zein da zuretzako bertsotan ari-**

tzeko momentu egokiena? Bertsoa hainbat lekutan erabiltzen da, baina guk ostantu giroan erabiltzen dugu, baita afariondotan ere, jendea rezeptiboago dago eta. **Zein da txapelketa irabazteko faboritua zure ustetan?** Edozeinek irabaz dezake, ez dago batere garbi. Hor daude bi Estitxuak, gero lehenagoko txapeldunak, Bittor eta Manolak ere konpatzen dute, eta bertze gazte batzuk ere aukera izanen dutela usate dut. Hagitz ongi ikusi dut Estitxu Fernandez.

EZKALO DONEZTEBE • 451518



Zerbitzu guzietan: ura, argia, telefonoa, guztiz urbanizatua

LAISTER DONEZTEBEN PABILIOI INDUSTRIAL ETA KOMERTZIALAK

1.800 m ²	48.000 pta.
900 m ²	52.000 pta.
450 m ²	56.000 pta.
300 m ²	58.000 pta.
150 m ²	62.000 pta.
75 m ²	65.000 pta.

EZKALO DONEZTEBE • 451518



Zerbitzu guzietan: ura, argia, telefonoa, guztiz urbanizatua

LANZ-en etxea salgai

Iruñetik 15 minututara, harrizko etxea salgai. Badu 300 m²ko baratzea eta solairu bakoitzean 300 m².
8.200.000 Pta.
Sagardotegi edo turismo etxerako egokia

ttipi-ttapa

631188

Berako Gure Txokoa areto-futbol taldeak maila mantentzeko ligaxka hasi berri du

- Gipuzkoako lehen maila haundixkoa suertatu zaio Berako taldeari
- Oinarrizko talde bat ezin du kantxaratu entrenatzaileak, jendea lanean ari delakoz

AITOR AROZENA

Bortziarik kirol taldea zena desagertu ondotik sortu zen Berako Gure Txokoa areto-futbol taldea. Zazpigarren denboraldian ari da aurrean. Hasiere batean Gipuzkoako bigarren mailan jokatu behar zuten, baina Federazioaren gonbitea jaso ondotik, lehen mailan jokatzearabaki zuten. Maila aldatuta gogor xamarra egin zaie ordea, eta lehen fasean azkena bukatu zuen, zortzi taldeko multzoan. Orain maila mantentzeko edo jausteko ligaxka hasi berri dute eta lehen partiduan 2-5 galdu zuten Beran. «Nobatada ordaintzen ari gara eta seguraski, hobe izanen zen ez bagenuen mailaz goitzea onartu» dio Julio Vivanco entrenatzaileak. Halere, zortzi taldeetatik bik bertzerik ez dute maila galtzen. «Lehen fasea ez zitzaigun interesatzen, ez baike-nuen mailaz igotzerik.



Gure Txokoa areto-futbol taldea maila mantentzeko lehen ari da

Argazkia: Bixente Taberna

Oraingo fase honetan lasai ederrean eutsi die-zaiokegu kategoriari».

Bi arazo nagusi ikusten ditu entrenatzaileak aurtengo taldean. Alde batetik jende gehiena berria dela areto-futboleko eta bertzetik, jen-

deak partiduak jokatze-ko dituen zailtasunak. «Larunbat arratsaldetan, Ibardinen lan egiten dutenek ezin izaten dute eta ezin duzu oinarrizko taldea atera. Asteazken zehar ongi lan egiten dute, baina par-

tidua ezin dute jokatu». Orain ez dabilta ongi, baina taldeak eskuratu-tako tituluak gogoratzen ditu Juliok. «Lehen urtean 3. mailako txapel-dun suertatu, hurrengoan 2. mailan txapela lortu eta lehen mailara igotzea

lortu genuen, segidan». 400.000 pezeta inguruko aurrekontua dute, arbitraiak eta fitxak ordaintzeaz gain, polikiroldegiaren errenta eta desplazamenduak ere Gure Txokoaren esku baitaude. ●

Banan Bana

Jokalaria	Herria	Adina
Joseba Iturralde	Bera	20
Iñaki Iriarte	Bera	25
Asier Criado	Bera	19
Santi Manterola	Sunbilla	23
Lino Zamora	Oieregi	27
Jose M ^a Gainza	Bera	29
Sabino Gomez	Bera	21
Jokin Rico	Bera	19
Angel Goikoetxea	Bera	28
Andoni Lasaga	Bera	19
Iñaki Goia	Bera	20
Enrique Irazoki	Sunbilla	25
Manuel Telletxea	Etxalar	29
Julio Vivanco	Entrenatzailea	

Julio VIVANCO entrenatzailea eta delegatua

«Taldea berria dugu eta zaila da elkarrekin ongi moldatzea»

■ **Zein helbururekin hasi zenuten denboraldia eta zein neurritan betetzen ari dira?**

□ Hasieran, kategoria berria ezagutu eta maila haundiagoa denez, ikastea zen. Gero ikusi dugu maila haundixkoa dela, batez ere talde berria dugulako.

Orain helburu nagusia kategoria mantentzea izanzen litzateke.

■ **Nola definituko zenuke zure taldea?**

□ Jende gehiena berria da, aunitzek lehen aldian dute areto-futboleko jokatzeko eta zaila da elkarrekin ongi moldatuta jokatzea,

konpenetratio hori falta da.

■ **Zer nota jartzen diozu egindako lanari?**

□ Zazpi bat. Ez da bakarrik sailkapena eta emaitzak begiratu behar. Asteazken lan polita egiten dugu eta hori ere kontuan hartu behar da.

Mikel Saralegi Donostiako belodromoan jaso zuen 325koa

- Leitzan martxoaren 2an saiatuko da kilo bat gehiagorekin
- Aurtengoan lortu zuen Sei Orduetan munduko marka ontzea

Mikel Saralegi leitzarrak munduko marka berria ezarri zuen otsailaren 15ean, Donostiako Sei Orduen barnean 325 kiloko harria bizkarreratzea lortu baitzuen. Marka hau berezia izan zen Saralegientzat, azken bi urtetan Euskadiko Sei Orduetan egindako errekor saialdietan ez baitzuen bere helburua lortu. *"Biurtez porrotegin nuen eta arantzaxo bat sartuan nuen, Donostian ere errekorra lortzeko gai nintzela erakutsi nahi nuen"*.

100, 200 eta 250 kiloko harriekin berotu ondotik, 325koari ekin zion eta hiru indar kolperen ondotik -normalean baino bat gehiago, ez baitzuen arriskatu



Mikel Saralegi, 325 kiloko harria bizkarrean berdintzeko momentuan
Argazkia: D.Noticias

nahi-22 segundutan jaso zuen harria. Ondoren, Donostiako Sei Orduetako bertze prota-

gonistari, omenaldia jaso zuen Migel Induraini alegia, bostekoa luzatu eta marka eskaini zion.

326 KILOKOA MARTXOAREN 2AN LEITZAN

Marka honi kilo bat gehiago gehitu nahi dio Mikelek igande honetan bertan Leitzan, AEKK antolatutako jaialdi baten barnean, beti ere Nafarroako Federazioak baimentzen badu. Saralegi dioenez, *"konfidantzarekin nago eta hori aprobetxatu beharra dago"*. Leitzarrak berak onartu duenez, bere gorputzaren muga ere ez dago urruti eta sasoi onean dagoen bitartean marka egiten saiatuko da.

BOITE pronto

■ Areso Euskal Herriko txapelkun

suertatu da 600 kiloko sokatira txapelketan eta Euskal Herriko ordezkari bezala parte hartu du Ingalaterrako Torbay herrian jokatutako munduko txapelketan. Aresorek ustekabeen eskuratu zuten txapela, itxaropenak pisu haundietan -640 eta 680- baitzituzten. Finala gogorra izan zen eta Beti Gazte laugarren sailkatu zen. Aresorek, sosa arazoak medio ez zuten klub mailan Munduko txapelketara joateko intentziorik, baina Euskal Herriko ordezkari bezala, Federazioaren dirulaguntza dutenez, joatea erabaki zuten.

Mikel Goñi oronoztarrak jokatuko du bigarren mailako eskuz banakako txapelketaren finala igandean Kokaren kontra

Mikel Goñi oronoztarrak, duela urtebete profesional egin zenetik jokatuko duen partidurik garrantzitsuen jokatuko du igande honetan, martxoaren 2an: bigarren mailako eskuz eskuko txapelketaren finala.

Finalerdietan partidu bikaina jokatu zuen Labriten Asier Olaizolaren kontra eta bostean utzi zuen goizuettarra. Sakearekin ongi ibili zen, peloteoan pilota ikaragarri gibeleratu zuen eta bozpasei dejada egin zituen, sotama-

no ikusgarri bat atzendu gabe. Eta partidua akitzeko, bi paretekoa. Olaizolak ez zuen bere maila erakutsi eta Goñik emaitza ez zela normala adierazi zuen, baina oronoztarra bere meritoei esker sartu zen finalean. Eskalaren beheko aldean hasi zen eta Apeztegia, Telletxea, Taberna eta Olaizola kanpoan utzi ondotik, Koka izanen du aurrez aurre final nagusian, Donostiako Atanon.

Koka ere ez zegoen, hasiera batean, faboritoen artean, baina As-



Mikel Goñi oronoztarra eta Asier Olaizola goizuettarra, finalerdietarako pilotak aukeratu ondotik
Argazkia: Egunkaria

tarloa, Imaz, Bazeta eta finalerdietan Agirreri (22-20) irabazi ondotik

bere aukera izanen du igandean. Ez da txapela jatzeko faborito argi-

rik izanen, batez ere faboritoak bidean gelditu direla kontuan hartuz.

AGENDA EGUNEZ EGUN

BERTO AFARIAK

DONEZTEBE

► Martxoaren 8an

arraseko 9etan Ameztia jatetxean Sebastian Lizaso eta Andoni Egañarekin. Izenematea martxoaren 5a baino lehen.

KONTZERTUAK

ERRATZU

► Martxoaren 1ean

Gauko 11etan Exkixu, Otsondo 602, Ttakun eta Bizkar Hezurra. 'Euskal Herriak izan behar du libre eta euskaldun' diskaren aurkezpena, Korrika Kulturalaren barnean. Sarrerak aldeaz aurretik salgai ohiko lekuetan.

ERAKUSKETAK

ELIZONDO

► Martxoaren 3tik 21era.

Arizkunenean ikusgai izanen duzue haurrek egindako pinturen erakusketa, egunero 7etatik 9etara.

BERTIZ

► Aste Saindua arte

Bidasoako Trenari buruzko erakusketa burutuko da Bertizko Jauregian. Asteburuetan bakarrik egonen da irekia.

AGENDA PRAKTIKOA

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 8.500 pta.
- **Zerri gizona** (95-100): 184pta./kilo
- **Zerramak**: 130 ppta./kilo bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak:**
- **Idixkoak:** Pzta./kg. Kanal
- Extra510
- 1.koa490
- 2.koa470

- **Urruxak:** Pzta./kg. Kanal
- Extra530
- 1.koa510
- 2.koa480

Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruzentzako.

- **Aretze ttikiak** (15 egun ingurukoak):
- Nabarrak:** urruxak 15.000 eta idixkoak 23.000 Pta.

Mestizoak: urruxak 25.000 eta idixkoak 36.000 Pta.

Behi zaharrak:

Behi nabar gizona: 320 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 180 Pta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIA: EHNE

HAMABOSTALDIKO GOMENDIOA

Itoizko urtegiaren kontrako besta Elizondon

Itoizko urtegien obrak berri ere martxan paratu dituztela eta, horren kontrako ekitaldiak areagotu egin dira Euskal Herri osoan barna. Donezteben otsailaren 28an Koordinadoraren bideoa ikusgai izanen da arratseko 8etatik aintzineraz Euskaltegian eta martxoaren 1ean Solidarioak etorriko zaizkigu Lesakara bideoa aurkeztu eta hitzaldia ematera. Ondotik afaria izanen da Arrano Elkartearen bertan. Bertzetik, martxoaren 9rako Elizondon Itoitzen aurkako besta prestatu dute, Kalejira erreibindikatiboa (ordubetetan) eta bazkari herrikoia (2,30etan) izanen direlarik. Bazkal ondotik trikitrixa, bertsolariak eta rock kontzertutxoak ez dira faltako. Ekitaldietara joateko Bizikleta Martxa bat antolatu dute Bera-ko Iamoteneatik goizeko 9tan habiatuko dena, eta goizeko 8etan Etxalar-ko Lizaietatik aterita Elizondoraino Mendi Martxa izanen da egun berean.



Itoizekin Solidarioak Iruñeko gartzelan sartu zizuten obretako kableak mozteagatik

LIBURUAK



«Leitzako errege-erreginak» Patziku PERURENA Euskaltzaindia/BBK

Autoreak berak hitzaurrean onartzen duenez, «badakit lan honek bere txokoa hartzen duela arnasa eta grazia». Baina gero argitzen duen bezala «Leitzakoa, har liteke beste edozein herriren lekukotzat». Leitzako herrian eta bertako jendearen kontakizunetan oinarritu da Patziku Perurena liburu hau idazterakoan. Bertan agertzen di-

ren argazki, bertso, partiturak... ere Leitzarren artean bilduak dira. Herri horren historia osatzeko balio handiko dokumentua dugu, beraz, «Leitzako errege-erreginak» hau. Patzikuk, ahoz kontatutakoak dokumentuz hornitu eta herri baten historia ofiziala baino atsegina eta sakonagoa den lana burutu daitekela frogatu du.

SAGARDOTEGIAK

Baztango sagardoa Larralde sagardotegian

Urtarrilaren 18an eman diote hasiera aurtengo sagardo denboraldiari Lekarozko Larralde sagardotegian. Gaugeru «jende majo» egondo dela erran digu sagardotegiko sozio den Gregorio Elizetxek. Hala ere, inauteriak direla eta, pixko bat jautsi dela ere aipatu du, «garai hauetan jendea bere herrian gelditzen delakoz».

31.000 LITRO SAGARDO

Iaz baino 6.000 litro gehiago kupeleratu dute aurten Larraldean, gehiena Baztanen bertan bildutako sagarrekin, gainera. Gipuzkoa aldetik ekarri dute gainontzekoa, baina kanpotik ekartzearekin ez daude ados eta horretarako Nafarroako sagarrondo plantazioak dituztenekin elkarte bat sortu dute, hemengo sagarra promozionatzeko. Gaian interesatuak daudenek ere badute lekua elkarre horretan. Bertako sagarra promozionatzearen alde agertzen dira elkarteko ki-deak.



Sagardo goxoa dastatzeko aukera izanen du Larralde sagardotegira hurbiltzen den guziak.

«SAGARDOZ» PATTARRA

Izen horrekin ezagutzen den pattarra egiten dute Larraldekoek bertze urtetako sagardoa probexteko. «Le-

DATUAK

Non dago:

Lekaroz herrira sartu eta Elizaren eskuinaldetik pasatzen den bidetik segitu behar da 1,5km. inguru. Badaude seinaleak.

Telefonoa:

(948) 452121

Menua:

Bakailu tortilla, ajoarrieroa, txuleta, gasna, gasna zaharra, gaztainak, giltzaurrak, menbrilloa

Prezioa:

2.000 - 2.500 Pta.

Denboraldiaren iraupena:

Sagardotegia apiril ondarrerarte. Jatetxea abuztuan itxi egiten dute.

henbiziko destilatu egin behar da, eta gero koñaka egiteko erabiltzen den prozesu berdintsua segitu behar da» azaltzen du Gregoriok. Harietzeko kupelean denboraldi luzez zahartzen utzi, eta 35-40 graduko alkohol maila duen pattarra bihurtzen da sagardoa. Edari hau oraindik ezagunegia ez bada ere, aurtengo udan ferietan salduko omen dute.

APIRIL ONDARRERARTE

Larralde sagardotegia apiril ondarrerarte idekia egonen da, nahiz jatetxe bezala urte guzian lan egiten duten. Sagardotegien xarma eta giro ederra harrapatuko du bertara hurbiltzen denak, horretarako Gipuzkoaraino joan beharrik ez, beraz. Astartean arratseko 8etatik aitzin zabaltzen dituzte atea eta asteburuetan egun osoz.

AGENDA EGUNEZ EGUN

ZINEA

DONEZTEBE

► **Martxoaren 1 eta 2an** 'Homicidio en primer grado'.

LEITZA

► **Otsailaren 28an eta martxoaren 2an** 'Independence day' eta 'La llave mágica'.

► **Martxoaren 7 eta 9an** 'Mis dobles, mi mujer y yo'.

KORRIKA

LEITZA

► **Martxoaren 2an** Saralegiren errekor saioa.

MENDI IRTEERAK

BAZTAN

► **Martxoaren 2an**

Baigorritik Adartzara joanen dira Baztango Mendigoizaleak.

► **Martxoaren 9an**

Etxalar-Elizondo Itoizko urtegiaren aurkako ibilbidean parte hartuko dute Baztango Mendigoizaleak.

GUARDIAKO BOTIKAK

061 Tfnoa. deitu behar da

► **Otsailaren 24tik martxoaren 2ra** Etxalar, Sunbilla, Elizondo (Lezaun) eta Goizueta.

► **Martxoaren 3tik 9ra** Arantza, Ituren, Elizondo (Iturri), Leitza eta Goizueta.

► **Martxoaren 10etik 16ra** Igantzi, NARBARTE, Elizondo (Lezaun), Urdazubi eta Goizueta.

DISKAK



«Gutariko bat» eta «Portobello Bones» AMANITA

Iaz ezagutu zuten elkar bi taldeek, Bermeon emandako kontzertu batean. Orduantxe eskeini zieten «Portobello Bones» frantziarrek beraien estudioetan singlea grabatzeko aukera. «Gutariko bat» talde beratarraren lehenbiziko grabazioa izan da elkarrekin egindako lanaren fruitua. Alde batean «Gutariko»ren bi kanta (izenik

gabekoak) eta bertzean «Portobello»koek euskaraz abesten duten «E.H.ko emakume batentzat» biltzen ditu binilo honek. «Gutariko bat»eko taldekideak arduratzen ari dira salmentaz, eta 450 pztaren truke singlea eskuratu nahi duenak (948)-637805 (Xabi) telefonora deitu edo kontzertu batean agertzea bertzerik ez du.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartitua
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK / LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK / ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko

zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...

Hegoaldetik deitzeko 948-
Iparaldetik 00-34-48

631188



...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. **ttipi-ttapa** ez du bere gain hartzen dohainik argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/geltseroak
- 202. Pintoreak

- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Salerosketak
- 602. Emateko
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

Egoera onean. ☎ 450399
(Mikel).

ETXEBIZITZAK

102 EROSI

Borda edo etxe bat erosi nahi da. ☎ 450326. Gauzez.

BERA. Boardilla edo pisu bat erosiko nuke. ☎ 929-443765.

ETXEBIZITZAK

103 ERRENTAN EMAN

LESAKA. Pisua errentan emanen nuke. ☎ 634166 arratsaldez.

GARAJEAK/LOKALAK

107 SALDU

BERA. 60 m²ko garajea salgai Burga plazan. Ura eta argiarekin. ☎ 631137 eta 630941.

LESAKA. Garajea salgai. ☎ 637010.

GARAJEAK/LOKALAK

109 ERRENTAN EMAN

LESAKA. Garaje plaza errentan emanen nuke, Al-bistur 64an. ☎ 637820.

LEITZA. Bajera bat alokatzen da. ☎ 510167

LURRAK / ORUBEAK

101 SALDU

SUNBILLA. 20.000m²ko lur-saila salgai. Metroa 20 durotan. ☎ 580228.

IGANTZI. 11.000m²ko lur-eremua salgai. Eraikigarria. Lesakatik kilometro terdiera. ☎ 387093.

ZERBITZUAK

205 ZURGINAK

zimeldi

Sukalde eta bainurako armarioak

Zimeldi • ETXALAR
☎ 948-387017

M^{te} Dolores Miñana
TOPOGRAFOA
NEURKETA • PLANOAK
*Lur neurketak, Luberrik
Plantazioak, etab...*
☎ 580143 - 989.445986
Santiago 68, 3. esk. ELIZONDO

ZERBITZUAK

208 BERTZELAKOAK

Kartelak, buzoiratzeako paperak, bisita txartelak, faktura taloiak... egiten ditugu. ☎ 631188 Bulego orduetan.

MOTORRA

501 SALEROSKETAK

Lada Niva salgai da. ☎ 451766-451841

Nissan markako kamioia 90 zaldikoa. Bolketea eta tarjeta badu. ☎ 637210 arratseko 8etatik aitzinera.

Citroen Visa NA-L salgai, egoera onean. 75.000 Pta.. ☎ 451577.

GANIX Tailerrak

Iturlandeta, 9 • ☎ 630669 • BERA

IBILGAILUEN MEKANIKA
ETA ELEKTRIZITATEA
FIAT Zerbitzua

MENDAUR MOTOR

☎ 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:
Renault Super-5, Suzuki Vitara labur eta luzeak,
Land Rover arina,
Suzuki Samurai eta Ford Fiesta.

BERABI tailerrak

☎ 631445 • BERA

Bigarren eskuko kotxeak:
Nissan Patrol, NA-P
Nissan Vanette Diesel (aukeran)
Citroen BX TRD ABS haize egokituarekin, SS-AC
Renault 11 GTD, SS-V

OPEL KADETT 2.0 GSI salgai. Egoera hagitz onean. ☎ 627521.

Suzuki GSX 750-F karretarako salgai. 22.000 km, egoera onean, NA-AD. ☎ 630678.

Yamaha 500ekoa salgai.

Ford ZALAIN MOTOR
☎ 63 11 57 • BERA

Stockean dauden ibilgailuen **LIKIDAZIOA**
Prezio bikainak:
50.000 ptatik goiti


Dieselak
Ford Fiesta 1800, 3 ate, 91koa.
Renault 19 Chamade 4 ate, 89koa.
Opel Kadet 82koa.
Ford Courier Combi lagunduriko direkzioa, 95koa.

Gasolina
Ford Fiesta 1.1 5 ate, 89koa.
Peugeot 205 1.6 5 ate, 88koa.
Opel Corsa 5 ate, 87koa.
Ford Orion 1.8 Ghia, 93koa.
Renault 11 1.7 5 ate, 86koa.
Opel Ascona 1.8 5 ate, 86koa.

BOAN TAILERRA
CITROEN Banatzailea

AUTO BERRIEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
☎ 63 06 23 • BERA

ttipi-ttapa



Bidali TTAPI-TTAPA herritik kanpo bizi diren lagun edo familiakoei

Bakar bakarrik bidaltze gastuak ordaindu behar dira.
Eskatu informazioa.

☎ **631188**

B RADIO
BIDASOA

Eztegara, 14
Tfnoa.: 630377
BERA

Apilira bitarte
CANAD kuotak
DEBALDE

SAMPI ARAGON
Autoak Salgai: Golf GTI,
Ford Fiesta, Seat Malaga,
Renault Espace,
Peugeot 106,
☎ 45 03 54 • DONEZTEBE

ANIMALIAK

601 SALEROSKETAK

Bi hilabeteko txakurkumeak salgai. Samoyedo arrazakoak, eta pedegréedunak. Merke. ☎ 637896.

Ardi txakurkumeak salgai. ☎ 604624 (gaueko 8ak aldera).

15 ardiren deretxoak salgai. ☎ 510071 (gauetz).

Ahari mutur gorria salgai, adar gabea eta bi urtekoa. ☎ 452483. Arratseko 8etatik aitzinera.

Bi urte terdiko monturako zaldia salgai. Hezituta. ☎ 637107 (eguerdiko 12etatik 3etara). Lesaka.

Husky siberiar arrazako

zakurra salgai. ☎ 630467.

Boxer arrazako xakurkumeak salgai. ☎ 631218.

SARA. Bi hilabeteko ardi-xakurkumeak salgai. 10.000 pezeta bakoitza ☎ 07-33-0559542954.

Hiru ardi galdu dira Arantzán. Ezkerreko belarrian punta motza eta pikua daukate eta eskuinekoan arraila. ☎ 634062.

DENETARIK

701 GALDU/AURKITUAK

Txal bat galdu da Lesakan, Bittiria karrikan. ☎ 637859.

Emakume erloju bat (Pulser Quartz) aurkitu dut Berako Herriko Etxeko plazan, San Anton egunean. ☎ 631476 (Begoña).

Urrezko erloju bat (OMEGA) galdu nuen Lesakan otsailaren 9an. Aurkitu duenari faborez itzul dezala eskatzen diot. ☎ 637010



ADOS

INMOBILIARIA AGENTZIA

Julian Izura Nuin

BERA.

- 104 m²ko pisua salgai
- Etxe zoragarria salgai.
- 70 m²ko bajera salgai.
- Pisu batzuk errentan emateko.
- 200 m²ko bajera komertziala salgai.
- 'Eguzki' kafetegia salgai, gaineko etxebizitzarekin

LESACA.

- 60 m²ko bajera salgai. Arras prestatua.
- Etxe elkar-atxikiak salgai. Familia bakarrekoak.
- 10.000 m²ko lur eremua salgai.

ETXALAR.

- Etxeak egiteko lur eremua salgai.

IRURITA.

- 140 m²ko etxea salgai.
- 350 m²ko etxea salgai.

ELIZONDO.

- Pisu salgai (Saskaitz enparantzan).
- Pisu berria salgai (Braulio Iriarte karrikan).
- 400 m²ko bajera bat eta bertze batzuk salgai.
- Familia bakarra eta bi familiendako etxeak salgai.

ORONOZ-MUGAIRI.

- Nabe-pabilioiak salgai.
- Kanpoaldeko pisua salgai. Arras ongi dago.
- Pisu bat errentan eman nahi da. Ongi dago.

LEGASA.

- Pisu salgai.
- 70 m²ko bajera salgai.

NARBARTE.

- Pisu haundi bat errentan emateko prest.
- Pisu erabilia salgai. Arras merkea.
- Pisu berria salgai.

DONAMARIA (IGURIN).

- Txalata salgai.

DONEZTEBE.

- Pisu batzuk errentan emateko prest.
- Pisuak salgai.
- Nabe pabilioiak salgai.
- Ostata salgai.
- Lur eremuak salgai.
- 30 m²ko bajera errentan emateko.

URROTZ.

- Baserria errentan emateko.

ELGORRIAGA.

- Pisu eder eta berria salgai, garajearekin.
- Familia batendako etxea errentan edo salgai.

ITUREN.

- Etxe eder bat bere lur eremuarekin salgai.
- Lur eremu batzuk saltzen

ZUBIETA.

- Azken bi pisu berriak salgai.

LEITZA

- Pisuak salgai. Berriak eta

geltsero, iturgin, elektrizista, zurgin eta pintoreak ditugu zure zerbitzura. Etxe-aldairak ere egiten dira, edozein egunetan.

PREMIAZKOAK (EROSTEKO)

- Bortzirietan baserri edo etxe bat.
- Bordak nonahi.
- Lur eremu eta baserriak Baztan aldean.

AUKERAK

- Doneztebeko nabe pabilioiak.
- Legasako pisua 6.000.000 Pta. negoziag.
- Zubietako azken pisuak 8.000.000 Pta.
- Lesakako bajera 7.000.000 Pta.
- NARBARTEKO pisu berria 9.500.000 Pta.
- Elizondoko familia bakarra eta bi familiendako etxeak salgai.

Modu askotako kontratuak egiten ditugu eta baita lege-arazoak konpondu ere. Badugu abokatua. Deiguzu konpromezurik gabe.

Telefonoak: 451841 / 908.778653 • Parrokia, 5-2. ezk. • DONEZTEBE

DENETARIK

702 SALEROSKETAK

«Do-re-mi» pianoa salgai, ahoarekin jotzekoa. Bazkaltzeko tenorean eta arratsetan 10ak arte, deitu 637304 telefonora.

Gasoil-depositoa salgai. 500 litrokoa. 15.000 Pta.. ☎ 637317 Gauetan.

Grundig telebista 25"koa salgai. Kate frantzesekin. ☎ 637217.

Egurrezko kaldera haundia salgai. ☎ 637127.

Haritz amerikano landareak salgai. ☎ 450771 (arratsaldeko 6,30etatik aitzinera).

Txatarra, moble zaharrak eta artilea erosten dugu. Etxez etxe eta eskura ordainduz. ☎ 989.042849.

Segamakina Rapid eta belarra goitzeko motorra, bere tuboarekin, salgai. Ongi daude ☎ 615046.

Karabana HERGO markakoa salgai. Bajera berran egondu da, oso gutti erabilia. ☎ 510011 (eguerditan edo gauetz).

internet

Hamabortzero paperean eta mundu zabaleko ordenagailuetan

<http://www.encomix.es/ttppi-ttapa>
Postontzi Elektronikoa: ttppi@encomix.es



URTEBETETZEAK

Sail hau dohanekoa da.
Nor bait zori ondu nahi baldin baduzu, bidali bere argazkia eta datuak helbide honetara

ttipi-ttapa
Urtebetetzeak Sailerako
Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA

Argazkiak berreskuratu nahi badituzte, bidali zuen helbidea eta selloa ere, edo nahiago baduzue pasatu gure bulegotik.



Asier Andueza Ostolaitz beratarrek 5 urte beteko ditu martxoaren 9an. Zorionak Oier eta Hegoaren partetik.



Hegoa Telletxea Andueza beratarrek 2 urte beteko ditu martxoaren 2an. Zorionak zure familiaren partez.



Nemesia Iriarte Huarte beratarrek 26an bete dituzte. Zorionak Hegoa eta Oierren partez.



Naiara Riopedre Huizi beratarren zorionak bere urtebetetzean. Bere familiaren partez.



Maider Almandoz Indakoetxea aranztarrek 6 urte beteko ditu otsailaren 17an. Zorionak Tania eta Lidiaren partez.



Jon Jaunarena Etxekoloneak 5 urte beteko ditu martxoaren 2an. Zorionak zure aita, ama eta Xabierren partez.



Poti exalartarrak 17 urte bete zituen otsailaren 1ean. Zorionak eta muxu haundi bat zuk dakizun tokian. Zure kuadrila.



Jon Amiano Iriarte amaiurtarrak 12 urte bete ditu otsailaren 4ean. Zorionak zure familiaren partez.



Jaione Andueza doneztebarrari: Zorionak zure urtebetetzea delako. Aunitz urtez. Zure klaseko lagunak.



Maitane Maritorea aniztarrek 12an bete zituen 15 urte. Zorionak zure koadrilaren partez.



Ainhoa Migeltorena Etxenike berroetarrek 26an bete zituen 26 urte. Zorionak bere familiaren partez.



Eneko Ordoki Agesta aranztarrek 9 urte bete ditu otsailaren 5ean. Zorionak zure familiaren partez.



Sara Salaberria Larralde 3 urte bete ditu otsailaren 24ean. Zorionak, Igone ahizpa eta familia guziaren partez.



Unai Elizagoien Larralde beratarrek 6 urte bete ditu otsailaren 18an. Zorionak bere familiaren partez.



Olatz Rojo Larralde lesakarrak 7 urte beteko ditu martxoaren 3an. Zorionak eta muxu aunitz ahizpa eta gurasoen partez.



Jaione Inda Zarran doneztebarrak 3 urte beteko ditu martxoaren 6an. Zorionak zure familiaren partez.



Ainhoa Oteiza Arretxea sunbildarrak 17 urte bete ditu otsailaren 11ean. Zorionak familiaren partez.



Unai Mariezkurrena Perurena ezkurdarrek 14 urte bete ditu otsailaren 23an. Zorionak zure anai eta gurasoen partez.



Itziar Telletxea Iguzkia-girre lesakarrak 4 urte beteko ditu martxoaren 3an. Zorionak Igantziako familiaren partez.



Josu Etxepare Larralde 6 urte bete ditu otsailaren 22an. Zorionak eta muxu haundi bat yaya, tati eta osabaren partez.



Esteban Arozana Larralde lesakarrak 23 urte egin zituen urtarriaren 16an. Zorionak zure familiaren partez.



Jose Manuel Arozana Larralde lesakarrak 26 urte beteko ditu otsailaren 28an. Zorionak zure familiaren partez.



Ana Mari Arrosamena exalartarrak 21 urte bete ditu otsailaren 6an. Zorionak zure mutilaren partez.



Xabier Ezkietza Sorozabal atarrabiarrak 32 urte bete ditu otsailaren 26an. Zorionak Mikel, Beñat eta bere familiaren partez.



Matias Huizi Leonet Labaien-darrak 80 urte bete ditu otsailaren 24ean. Mikel, Beñat eta familia guziaren partez, zorionak atauxi.



Edurne Etxeberria Petrirena elgorriarrak 7 urte beteko ditu martxoaren 2an. Zorionak zure familiaren partez.



Uxo Mitxelena Arriadak 4 urte beteko ditu martxoaren 4an. Zorionak guraso eta Laura, Inigo eta Josuneren partetik.



Edurne Iriarte Indakoetxea sunbildarrak 11an bete dituzte. Zorionak bere familiaren partez.



Aitor Lujanbio Zabala goizuetarrak 5 urte bete ditu otsailaren 23an. Zorionak zure familiaren partez.



F. Javier Lujanbio Zubiri goizuetarrak 39 urte beteko ditu otsailaren 28an. Zorionak zure familiaren partez.



Joanes Errea Iribarren elizondarrak 7 urte beteko ditu otsailaren 28an. Zorionak eta aunitz urtez Beñat eta gurasoen partez.



Itxaso Salas Arretxea sunbildarrak 7 urte beteko ditu martxoaren 18an. Zorionak Sunbillako familiaren partez.



Jabier Salas Arretxea sunbildarrak 6 urte beteko ditu martxoaren 5ean. Zorionak Sunbillako familiaren partez.



Ander Agesta Almandoz aranztarrek 19an 18 urte bete zituen. Zorionak familiaren partez.



Loli Romano Gonzalo beratarra martxoaren 7an iaz baino urte bat gehiago beteko du. Zorionak Bahiako Joao-ren partez.



Naroa Loiaz Etxeberria igantziarrak 4 urte beteko ditu martxoaren 2an. Zorionak familia guziaren partez.



Bittor Chantre Irazoki otsailaren 24an 4 urte bete ditu. Etxeko pilotariari mila zorion.



Joseba Zubillaga Goñik urteak bete ditu. Zorionak



Jon Mikel Asensio Santesteban zubitarrek 28an bete dituzte 11 urte. Gateiztik zorionak.



Imanol Oteiza Unanuak otsailaren 25ean bete dituzte 3 urte. Zorionak familiaren partez.

HARREMANAK

801 AGURRAK

Arrasateko Leire Ortuosteri: Aupa fragel. Hirugarren zuritoan akabo. Eutsi panderetari. La fami.

Lander Etxarriri zorionak, bere alaba Itziarren partetik.

tik.

Zorionak Berako Gexa- nendako bere bigarren urtebetetzean (martxoaren 3an), Elgorriagako bere familiaren partez.

Gorka Alduntzin Agirre leitzarrak otsailaren 15ean ospatuko du bere 18. urtebetetzea. Zorionak zure le-

hengusu, izeba, amona, eta etxekoan partetik.


Xabier eta Jon Zabaleta Sodupe: otsailaren 23an 3 urte betetzen dituzte. Leiztatik beren lehengusuek partez, zorionak.

Nekane Pagola Errandonea beratarrek martxoaren 7an justu behar dituen ur-

teak beteko ditu. Zorionak Richard Gere-n partez.

Sarako Eskola Publikoko 3, 4 eta 5. mailako ikasleei: Kaixo lagunak. Zuek ezagutzeko irrikitan gaude. Agur. Marxoan ikusiko gara Arantzán. Arantzako Eskolako 5. eta 6. mailako ikasleak eta irakasleak.

Urruñako Eskola Publiko- ko 3 eta 4. mailako ikasleei: Kaixo lagunak. Sarata-rrekin batera, martxoan elkar ikusiko dugu Arantzán. Besarkada bat. Arantzako Eskolako 5. eta 6. mailako ikasleak eta irakasleak.



TTIPI TXARTELArekin dirua irabaziko duzu

Elizondoko
DATUCELA
tallerrean
errate batera
bateria eta
amortiguadoreta
%15eko
DESKONTU
izanen duzu.



DESKONTUAK

AUTO TALLERRAK

MENDAUR MOTOR	Doneztebe
SANPI ARAGON	Doneztebe
PEDRO GARMENDIA	Elizondo
DATUCELAY	Elizondo
ZALAIN MOTOR	Bera

AUTO-ESKOLAK

SEMPER	Bera
--------	------

ARGAZKI DENDAK

GOIKO	Bera
AYLA	Bera
MENA	Doneztebe/Elizondo
ZALDUA	Doneztebe/Elizondo

ARROPA DENDAK

SAIOA	Doneztebe
J.J. PICABEA	Doneztebe
TXIRRISTA	Doneztebe
PICABEA BOUTIQUE	Doneztebe
IPINGI	Elizondo
COCOS	Elizondo
FANTXIKE	Elizondo

ELEKTROGAILU DENDAK

MARIXUS	Lesaka
RADIO BIDASOA	Bera

ESTETIKA ZENTRUAK

AMAIA	Doneztebe
BEATRIZ	Elizondo
MARIAN	Lesaka

KIROL DENDAK

IPARLA KIROLAK	Elizondo
ZELA KIROLAK	Bera
AGARA KIROLAK	Bera
M ^a LUZ SPORT	Bera

LENTZERIAK

M ^a CRUZ	Doneztebe
MAITE	Elizondo
DENE	Lesaka

LIBURUDENDAK

NAFARPRESS	Elizondo
LEGARRA	Lesaka

MOBLEDENDAK

AMAIUR ALTZARIAK	Doneztebe
------------------	-----------

OPTIKAK

OSTARGI	Bera
---------	------

ZAPATADENDAK

NEREA	Doneztebe
OSTIZ	Doneztebe

ZURGINAK

ZIMELDI	Etxalar
---------	---------



ESKATU BAT
ZURETZAT

...eta
Elizondoko
RENAULT
GARMENDIAN
%20ko
DESKONTUA
kubiertetan.
Eta horela
bertze 38
komertzio eta

631188

Laguntza Eskaria P.A.C.

Nekazariak



Abeltzainak



Tramitatu itzazu gure bulegoetan
Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin